



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

.....
**Hiri hondakinak kudeatzeko
ordenantza**
.....

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAN HONDAKINAK KUDEATZEA ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

II. TITULUA. ETXEKO HONDAKINEN BILKETA

I. kapitulua. Baldintza orokorrak.

II. kapitulua. Edukiontzi bidezko bilketa.

III. kapitulua. Bilketa pneumatikoa.

IV. kapitulua. Bilketaren baldintzak eta erabiltzailearen betebeharrak.

I. atala. Ohiko bilketa.

II. atala. Bilketa bereziak.

III. TITULUA. ETXEKO HONDAKINEN TRATAMENDUA

I. kapitulua. Baldintza orokorrak.

II. kapitulua. Etxeko hondakinen sortzailearen/edukitzailearen betebeharrak.

III. kapitulua. Etxeko hondakinak tratatzeko instalazioak.

IV. TITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

V. TITULUA. ERREKLAMAZIOAK

XEDAPEN INDARGABETZAILEA ETA AZKENA

I. ERANSKINA. LURPEKO EDUKIONTZIAK JARTZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

II. ERANSKINA. BILKETA PNEUMATIKOAREN ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK

III. ERANSKINA. GARBIGUNEETAN ONAR DAITEZKEEN HONDAKINAK

IV. ERANSKINA. EDUKIONTZIAK ETA BUZOIAK IREKITZEKO GAILUAK ERABILTZEKO ETA ESKURATZEKO ARAUAK

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK, HELBURUA ETA APLIKAZIO ESPARRUA

1. artikulua. ESKUMENA DUEN ERAKUNDEA. Iruñerriko Mankomunitatea (hemendik aurrera, Mankomunitatea) toki erakundea da, elkarte izaera duena, eta bere helburuen artean hondakinak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuak ematea dago, Mankomunitateak une bakoitzean direlako zerbitzu horien titulartasuna dueneko toki erakundearen edo jardun esparruetan, ingurumenaren eta herritarren osasunaren babesa lortzeko xedea izanik.

2. artikulua. TOKIKO ESKUMENAK. Mankomunitateak eskumena du haren esparruan sortzen eta uzten diren etxeko hondakinak biltzeko, garraiatzeko eta tratatzeko, ordenantza honetan ezartzen den moduan eta hondakinei buruzko legerian eta toki araubidearen legerian ezarritakoari jarraituz.

Mankomunitateak du zaintza eta ikuskeraren ahalmena eta zehapenak jartzekoa, bere eskumenen esparruan.

Mankomunitateak hau egin dezake:

- Hondakinak kudeatzeko eta/edo hondakinen prebentziorako bere programa onestea, bere eskumenen esparruan eta esparru plan nazionalarekin eta hondakinak kudeatzeko autonomia planekin koordinaturik. Hala behar denean, hondakinen prebentziorako plana sartu ahal izango da hondakinak kudeatzeko planean.
- Merkataritzako hondakin ez arriskutsuak biltzea, ordenantza honetan ezarritako moduan.
- Etxeko hondakinak biltzea, ordenantza honetan ezarritako moduan.

3. artikulua. ZERBITZUA KUDEATZEKO MODUA. Aurreko artikulua aipatzen dituen zerbitzuak kudeatzen ditu Mankomunitateak, helburu horrekin berak sorturiko kudeaketa sozietate baten bidez, Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. (SCPSA), tokiko zerbitzuak emateari buruzko gaietan indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin bat.

4. artikulua. HELBURUA. Ordenantza honek SCPSAren eta hondakinen kudeaketa zerbitzuen erabiltzaileen arteko harremanak arautzea du helburu, aipatutako eremuan, hierarkia printzipioa aintzat hartuta, eta emaitza global onena lortzeko xedearekin, hondakinek gizakion osasunean eta ingurumenean izan ditzaketen kontrako eraginak arinduta.

Zerbitzu horiek emateagatiko prezioei dagokienez, une bakoitzean Mankomunitateak onartu eta indarrean jarritako Hondakinak kudeatzeko zerbitzuak finantzatzea arautzeko ordenantzari jarraituko zaio.

5. artikulua. APLIKAZIO ESPARRUA. Ordenantza hau orobat aplikagarria izango zaie bere eskumeneko eremuan ematen diren etxeko hondakinen kudeaketa zerbitzuei, eta bai, bere kasuan, eremu horretatik kanpo ematen direnei ere, guztiz edo zati batean.

Ordenantza honetako arauak analogiaz aplikatuko zaizkie espresuki araututa ez dauden kasuei eta, beren izaeragatik, haren aplikazio esparruaren barnean daudenei.

Mankomunitateak, ordenantza hau aplikatzean sor litezkeen zalantzei buruzkoan, bidezko jotzen duen interpretazioa ezarriko du.

6. artikulua. ARAUBIDEA. Ordenantza honen araubidea hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen eta hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen xedapenei lotuko zaie eta hondakinen kudeaketaren gainean aplikagarriak diren gainerako xedapenei.

7. artikulua. DEFINIZIOAK. Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean ezarrita dagoenaren arabera (3. artikulua), ordenantza honetan xedatutako areneragin eta arazoak, definizio hauek hartu behar dira aintzat:

Hondakina: edozein gai edo gauza, jabeak bota egiten badu edo botatzeko asmoa edo betebeharra badu.

Etxeko hondakinak: etxeko jardueren ondorioz etxeetan sortutako hondakinak. Horien gisakoak, zerbitzuek eta industriek sortuak ere, hartuko dira etxeko hondakintzat.

Hauek ere kategoria honetan sartzen dira: aparatu elektriko eta elektronikoetatik etxean sortzen direnak, arropa, pilak, metagailuak, altzariak eta etxeko gauzak, baita etxeetan egiten diren obra txikietako eraikuntza edo konponketatik heldu diren hondakinak eta obra hondakinak ere.

Hauek ere etxeko hondakintzat hartuko dira: eremu publikoak, berdeguneak, josteta eremuak eta hondartzak garbitzetik heldu direnak, etxeko animalia hilak eta ibilgailu abandonatuak.

Merkataritzako hondakinak: handizkako nahiz txikizkako merkataritzak berezko duen jardueratik sortuak, baita jatetxe eta ostatuetako zerbitzuetatik, bulego eta merkatuetatik eta zerbitzu sektoreko gainerakoetatik heldu direnak ere.

Udal hondakinak: udalaren eskumenekoak izango dira etxeko hondakinak eta merkataritzako hondakin ez arriskutsuak.

Industriako hondakinak: industria jarduerak sortzen dituen fabrikazio, eraldakuntza, erabilera, kontsumo, garbiketa edo mantentze prozesuen ondorioz hondakinak, kanpo utzirik atmosferarako isuriak, Atmosfera babesteari eta airearen kalitateari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legeak arautzen baititu.

Hondakin arriskutsuak: Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen III. Eranskineko zerrendan agertzen diren ezaugarri arriskutsuetarik bat edo gehiago dituzten hondakinak, baita Gobernuak onesten dituenak ere Europako araudian edo Espainiak parte hartzen duen nazio arteko hitzarmenetan ezarritakoari jarraikiz, eta orobat hondakin horiek eduki dituzten ontziak.

Obra txikiko eraikuntzaren eta eraispeneren hondakinak eta etxeko konponketetakoak: etxe partikular, saltegi edo bulego batean edo zerbitzuen sektoreko higiezin batean egiten diren eraikuntza edo eraispeneren obrak dira, teknika errazekoak eta eraikuntza eta ekonomia aldetik garrantzi gutxiak. Haien ondorioz ez dira aldatzen bolumena, erabilera, denek erabiltzeko instalazioak edo etxebizitza eta lokalen kopurua, eta ez dute behar tituludun profesionalen sinatutako proiekturik.

Olio erabiliak: olio guztiak, hala mineralak nola sintetikoak, industrialak edo laborategiak, jatorrian

aurreikusitako erabilerarako jadanikbalioezdutenak, halanola errekuntzako motorretakoolio erabiliak eta abiadura-kaxetakoolioak, oliolabaintzaileak, turbinetarakoolioaketaolio hidraulikoak.

Landare olio erabiliak: etxeetan janariak frijitzeko erabiltzen diren landare olioien hondakinak edo taberna, jatetxe, hotel eta beste jatetxe zerbitzu batzuetakoak, bai eta kontserben olioak ere. Hemen ez dira sartzen beste janari koipe batzuk.

Biohondakinak: biodegradatzen ahal diren hondakinak, lorategi eta parkeetakoak, eta elikadurako eta sukaldeko hondakinak, etxe, jatetxe, taldeentzako sukaldaritza zerbitzu eta txikizkako salmentan aritzen diren establezimenduetatik heldu direnak, baita elikagaiak prozesatzeko plantetatik heldu diren eta horiekin pareka daitezkeen hondakinak ere.

Prebentzioa: gai, material edo produktu bat asmatu eta diseinatzeko, ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko faseetan hauetarako hartzen diren neurriak:

1. Hondakin kopurua, baita produktuak berriz ere erabilirik edo produktuen bizi erabilgarria luzaturik ere.
2. Sortutako hondakinek ingurumenari eta giza osasunari egiten dizkieten kalteak, barne dela aurrezteko materialak edo energia erabiltzean.
3. Gai kaltegarrien edukia, material eta produktuetan.

Hondakinen sortzailea: pertsona fisiko edo juridiko oro, haren jarduerak hondakinak sorrarazten baditu (hondakinen hasierako sortzailea) edo hondakin horien izaeran edo osaeran aldaketa eragiten duten jarduketak egiten baditu, hala nola alde zuzeneko tratamendua, nahasketak edo bestelakoak. Mugetako instalazioetan kontrol eta ikuskaritza zerbitzuek kentzen dituzten salgaien kasuan, salgaiaren ordezkaria hartuko da hondakinen sortzailetzat, edo bestela haren inportatzailea edo esportatzailea.

Hondakinen edukitzailea: hondakinak dauzkana, hondakinen sortzailea izan edo beste pertsona fisiko edo juridiko bat.

Negoizatzailea: hondakinak erosten eta ondoren saltzen bere kontura aritzen den pertsona fisiko edo juridiko oro, baita hondakinak fisikoki hartzen ez dituzten negoziatzaileak ere.

Agentea: hondakinen balorizazioa edo ezabaketa hirugarrenen eskariz antolatzen duen pertsona fisiko edo juridiko oro, baita hondakinak fisikoki hartzen ez dituzten agenteak ere.

Hondakinen kudeaketa: hondakinen bilketa, garraioa eta tratamendua, eta lan horiek zaintzea, eta zaborteak itxi eta geroko mantentze lana egitea, negoziatzaile edo agente gisa egiten diren jarduketak barne.

Hondakinen kudeatzailea: pertsona edo entitatea, publikoa nahiz pribatua, baimen bidez edo komunikazio bidez erregistratua, hondakinen kudeaketa osatzen duten jarduketatariko edozein egiten duena, haien sortzailea izan edo ez.

Bilketa: hondakinak jasotzea, barne dela hasierako sailkapena eta biltegitratzea, horiek tratamendurako instalazio batera garraiatzeko.

Gaikako bilketa: hondakinen emari bat gaika egiten da, haien mota edo izaeraren arabera, tratamendu berariazkoa errazteko.

Berrerabilpena: edozein lan, haren bidez produktuak edo produktuen osagaiak, hondakinez direnak, berriz ere erabiltzen badira, zertarako asmatu ziren eta horrexetarako.

Tratamendua: balorizazio edo ezabaketa jarduketak, barne dela balorizazioaren edo ezabaketaren aurreko prestakuntza.

Balorizazioa: edozein jarduketa, haren emaitza nagusia bada hondakinak xede baliagarria izatea, bestela eginkizun partikular bat betetzeko erabiliko liratekeen materialak ordezkaturik, edo hondakina prestatzea, eginkizun hori instalazioan nahiz, orohar, ekonomian betetzeko. 22/2011 Legearen II. eranskinean jasotzen da balorizazio lanen zerrenda ez zehatza.

Berrerabilpenerako prestakuntza: egiaztapena, garbiketa edo konponketa dakarren balorizazio lana, haren

bidez hondakin bilakatu diren produktuak edo produktuen osagaiak prestatzen badira berriz ere erabili ahal daitezen beste inolako eraldaketarik gabe.

Birziklatzea: balorizaziolana, haren bidez hondakinen materialak berriz ere produktu, material edo gai bilakatzen badira, hala jatorrizko xederako nola beste edozein xedetarako. Haren barnean sartzen da material organikoaren eraldaketa, baina ez balorizazio energetikoa, ezta erregaitako edo betelanetarako erabiliko den material bilakatzea ere.

Ezabaketa: edozein jarduketa, balorizazioa ez bada, baita lan horren bigarren mailako ondorioa denean gaien edo energiaren aprobetxamendua. Legearen I. eranskinean jasotzen da balorizazio lanen zerrenda ez zehatza.

Konposta: medeagarri organikoa, bereizita biltzen diren hondakin biodegradagarrien tratamendu biologiko aerobioaren eta termofiloaren bidez lortzen dena. Ez da konposta izango hondakin nahasien tratamendu mekaniko biologikoko plantetan lortzen den material organikoa, horri material bioegonkortua esango baitzaio.

Edukiontzia eta buzoia gailu elektronikoaren bidez irekitzeko sistema: edukiontzia eta buzoia gailuak erabilia (txartelak edo kidekoak) ireki eta ixteko aukera ematen duten elementu mekanikoen, elektronikoen eta komunikazioko multzoa, eragiketa horren datuak lortuz, eta datu horien kudeaketa.

Zero zabor ekitaldia: sortutako hondakinak minimizatzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzea bermatzeko bidea emateko moduan diseinatu, antolatu eta garatutako ekitaldia da.

8. artikulua. DEBEKUAK. Era egokian utzi eta gero hondakinak Mankomunitatearen jabetzakoak izatera igarotzen dira. Kale-plazetan dauden edukiontzietara botata dagoen edozein hondar material hautatu eta hartzea debekatuta dago, geroago hori baliatzeko.

Debekatuta dago edukiontzietara botatzeko hondakinen dentsitatea handitzea xede duten instalazioak egitea, Mankomunitatearen berariazko baimena izan gabe.

Debekatuta dago edukiontzietan grafiatik egitea edo horiek margotzea, edozein motatako kartelak edo itsaskinak jartzea edo publizitatea egiteko erabiltzea.

Debekatuta dago hondakinak estolderiatik botatzea edo hustea (zigarrokinak, pixoihalak, janari hondarrak...), aurretik birrinduta badaude ere.

9. artikulua. ERANTZUKIZUNA. Hondakinen edukitzaileak hondakin edo zabor horiek eragin litzaketen kalteen gaineko erantzukizunik gabe geratuko dira, baldin eta haiek ematean ordenantza honi eta beste arau aplikagarriei jarraitu izan bazale.

10. artikulua. BESTE KUDEATZAILE BATZUK. Pertsona fisiko edo juridiko bakar bat ere ezin izango da aritu Mankomunitatearen eskumenekoak diren etxeko eta/edo merkataritzako hondakinak biltzen eta baliatzen, haren berariazko baimenik ez badu.

11. artikulua. BIDEETAKO GARBIKETA. Herriko bideetako garbiketa lanetan sortutako hondakinak, eskuz edo makinaz egindako errazketako hondakinak, orbelak eta beste hondakin batzuk horrexetarako ezarritako edukiontzietan utziko dira, udalaren edukiontzietan. Kokalekua, edukiontzi mota eta jarri beharreko unitate kopurua Mankomunitateak baimendu beharko du.

II. TITULUA. ETXEKO HONDAKINEN BILKETA

I. KAPITULUA. BALDINTZA OROKORRAK

Mankomunitateak zerbitzuak zein baldintzatan emango dituen eta hondakin eta zaborren bilketa zerbitzu horiek erabiltzaileak nola baliatuko dituen arautuko du kapitulu honek.

12. artikulua. ERABILTZAILEAK. Zerbitzu hauek emateari dagokionez, erabiltzaile izaera dute beren helbidea udal eta kontzejuetan duten edo ordenantza honen xede diren zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek, non Mankomunitateak hondakinak biltzeko, tratatzeko eta baliatzeko eskumenaren titulartasuna duen.

13. artikulua. BILTZEKOAK. Hondakin mota hauek izango dira biltzekoak:

- a) Etxeko kontsumoko hondakinak eta elikapenekoak, herritarrek beren etxeetan sorturikoak.
- b) Herritarrek espaloietan egindako ekorketan sortutakoak.
- c) Zuhaitz inausketako eta landare mantenimenduko arbasta, zatikatua ematen dena.
- d) Merkataritza lokaletan sortutako estalkiak, ontziak, enbalajeak eta beste hondakinak.
- e) Zerbitzu, industria eta merkataritza jardueretan sortutako hondakin gaiak, etxebizitzetako zaborren gisa berekoak direnak.
- f) Taberna, jantoki eta, oro har, sutan prestatutako gai jangarriak ematen diren beste saltokietan, edota edonolako gaiak jan-edaten diren lokaletan sortzen direnak. Halaber, supermerkatu, autozerbitzu eta horrelako saltokietan sortzen direnak ere.
- g) Egoitza, hotel, ikastetxe, beste lokal publiko edo herritarrek sarrera duten lokaletan sortzen diren
- h) kontsumoko hondakinak oro har.
- i) Udal azoketako jardunean sortutako hondakinak.
- j) Etxebizitzetan egindako obra txikietan sortutako hondakinak eta etxeko konponketetakoak.
- k) Etxebizitza eta saltokietan sortutako errautsak.
- l) Etxeko tamaina handikoak, hala nola arropa, oinetakoak eta horiek bezalako edozein gai.
- m) Etxeko animalia hilak.
- n) Etxeko hondakin arriskutsuak, herritarrek beren etxebizitzetan sortutakoak.
- o) Ordenantza honen 31. artikuluan ezarritako I. eta II. taldeetako klinika hondakinak.
- p) Beren izaera edo osaeragatik etxeko hondakintzat jo daitezkeen zeinahi beste hondakin oro.

14. artikulua. BILTZEKOAK EZ DIRENAK. Inolako kasutan bilketan sartuko ez diren hondakinak:

- a) Hondakin arriskutsuak, etxebizitzetan sortutakoak izan ezik.
- b) Industriako-merkataritzako hondakinak, beren izaeragatik, osaeragatik edo aurkeztutako eragatik etxeko hondakin gisa ezin onartuzkoak direnak.
- c) Erabileratik kanpo dauden pneumatikoak.
- d) Abeltzaintza eta nekazaritzako ustategietatik datozen hondakinak, animalia hilak barne.
- e) III. taldean dauden klinika hondakinak, 296/1993 Foru Dekretuaren arabera.
- f) AMA eta GKEDA izendatutako hondakinak, haragi ustategietan, harategietan, arrandegietan eta halakoetan sortutakoak, urriaren 21eko 1069/2009 EE Erregelamenduaren arabera.
- g) Hondakin likidoak edo isurki bihur daitezkeenak.
- h) Hondakin erradioaktiboak.
- i) Beren izaeragatik, osaeragatik edo ezaugarriengatik etxeko hondakintzat jo ezin daitezkeen zeinahi beste hondakin oro.
- j) Lehergai eta piroteknia hondakinak.

15. artikulua. HELBURUA. Bai Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, bai 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakin Planak eta Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legeak ere, hondakinak berrerabiltzeko, birziklatzeko eta hondakinak balorizatzeko beste mota batzuen helburuak finkatzen dituzte, ingurumena eta gizakion osasuna babesteko helburuarekin.

Ondorio horietarako, Mankomunitateak bilketa berezia egiteko sistema eratua du, era batez edo bestez aprobetxagarri diren hondakinak, edota beren biltze berezia komenigarritzat jotzen direnekoak biltzeko; erabiltzaileak hondakinok bereizita ematera behartzen ditu horrek.

Hondakinak egoki kudeatzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko, Mankomunitateak beharrezkoak diren neurriak jasotzen ditu ordenantza honetan, jatorrian bereiztea emendatzeko eta bilketa-zerbitzua optimizatzeko xedearekin.

16. artikulua. EDUKIONTZIAK ETA BUZOIAK GAILU BATEN BIDEZ IREKITZEA. Ordenantza honetako 15. artikuluan jasotako helburuak lortzeko, edukiontzia eta buzoia gailu baten bidez irekitzeko sistemak kokatuko dira progresiboki. Sistema horiek ahalbidetuko dute edukiontzi eta/edo buzoia bakoitzaren irekitzedatuak bildu eta erregistratzea, erabilera-maila ezagutzeko xedearekin, helburu normatiboak lortzeko, eta bai zerbitzua eta bere emaitzak sustatzeko jarduerak egiteko ere.

Irekitzeko gailuen erabilera eta eskuragarritasuna ordenantza honetako IV. Eranskinean jasotakoari egokituko zaio.

II KAPITULUA. EDUKIONTZI BIDEZKO BILKETA

17. artikulua. BILKETA ZERBITZUA. Mankomunitateak edukiontzi bidezko ohiko zabor bilketa zerbitzua antolatua du, eta erabiltzailea behartuta dago zerbitzu hori egokiro erabiltzera. Hondakinak biltzeko zerbitzua emateak ondorengo eginbideak bete beharra ekarriko du:

- Edukiontziak bilketarako ibilgailuetara garraiatzea.
- Edukiontziak hustea.
- Behin hustu eta gero, edukiontziak beren ohiko kokapenera eramatea.
- Eginbide horien ondorioz kale-plazetara isuritako zaborrak garbitzea.
- Hondakinak garraiatzea eta Mankomunitateak horretarako egokitutako tratamendu zentroetan haiek hustea.
- Edukiontziak garbitzea eta behar bezala mantentzea.

Edukiontzi mota, erabiliko den edukiontzi kopurua eta haien kokapena Mankomunitateak erabakiko du. Mankomunitateak edukiontzi gune baten kokapena erabaki eta gero, ezin izango da aldatu bertako zerbitzu teknikoek berariazko baimena ez badute ematen. Erabiltzaileek ezin izango dituzte mugitu edukiontziak.

Jabetza publikoko edukiontziak direnez, Mankomunitateak ordezkaturako ditu, erabiltzaileentzat inolako kosturik gabe, erabilera egokiagatik ere matxura konponezinik dutenetan edo desagertu izan direnetan, baina zerbitzurako erabili ezinakin erabilera okerragatik suertatu direnetan (pisu gehiegi sartu izana, desegoki erabili izana ...) dagokion ordaindu beharra erabiltzaileari egotzi ahal izango zaio.

Hesiak edo babes barrak jarrita mugatuko du bilketarako gunea Mankomunitateak, eta helburua izango da tokia gelditzea eta egotea zamatzeko, husteko eta zerbitzua ongi emateko gainerako eragiketarako, alde batera utzirik pasabideak eta helburu horretarako hiri espazioko erreserba bereziak jartzea eskatzeko aukera izatea.

Titularraren eskariz, edukiontziak jabetza partikularren barnean kokatu ahal izango dira, betiere bilketa eragozpenik gabe egin ahal bada eta zerbitzuko ibilgailuak edukiontzi guneraino bertaraino oztoporik gabe iritsi ahal badira.

18. artikulua. LURPEKO EDUKIONTZIAK. Era orokorrean, ez da lurpeko edukiontzirik jarriko Mankomunitatearen eremuan.

Hala ere, jada ezarririk dauden instalazioetarako edo egoki justifikatutako aparteko kasuetarako, ezartzea baimentzen den kasuetan, I. eranskinean dauden baldintza teknikoak bete beharko dira.

III. KAPITULUA. BILKETA PNEUMATIKOA

Iruñerriko Mankomunitateak egoki jotzen du, ingurumen arrazoiengatik eta bilketa zerbitzua hobetzeko asmoarengatik, garrantzi handiko hiri garapen guneetan hondakinen bilketa pneumatikorako sistemak ezartzea.

19. artikulua. XEDEA. Kapitulu honen xedea da Iruñerriko Mankomunitatearen eremuan ezartzen diren bilketa pneumatikorako instalazioen gaineko baldintzak arautzea, sistemaren erabilera arauak ezartzea eta bai Mankomunitateko zerbitzu teknikoei eta/edo izendatutako langileei kanpoko eta barneko instalazioen ikuskatze, mantentze, zaintze eta konpontze lanak esleitzea, bilketa pneumatikorako sistemaren funtzionamendu egokia oso-osorik bermatuta gelditu dadin.

20. artikulua. SISTEMA EZARTZEA. Mankomunitateak, dagokien udalekin batera, haren esparruko hainbat gunetan, ordenantza honen baldintzen arabera, sustatuko du hondakinen bilketa sistema automatizatu edo pneumatiko baten bidez egitea.

1.000 etxebizitzatik gorako hirigintza garapen guztietan, Iruñerriko Mankomunitateak aurretik azterketa bat egingo du, eta kasu horietan bilketarako sistema ezartze kasu bakoitzean ateratzen diren ondorioen arabera erabakia izango da.

Hala ere, proiektatutako etxebizitza kopurua txikiagoa den kasuetan ere, bilketa sistema pneumatikoa ezartzea exijitu ahal izango da, baldin eta hirigintza egitasmo mugakiderik badago edo instalazioa ekonomikoki eta teknikoki bideragarria egiten duen azpiegiturarik badago hurbil.

Bilketa pneumatikoa ezartzea erabaki denean, dagokion urbanizazio proiektuak sare nagusia eta bilketa

gunea instalatzea aurreikusi beharko du, eta aurreikusi beharko du, gutxienez, lotura adar bat lurzati bakoitzeko. Era berean, jabeek barneko sarea instalatu beharko dute, hau da, isurtzeko guneak, urbanizatzeko fasean instalatutako loturatik.

Sistema hau ezartzearen ondorioz sortutako gastu guztiak sustatzaileen gain geldituko dira, eta gero Mankomunitateak hartuko ditu bere gain, bera baita hondakinak kudeatzeko gaien lruñerrian eskumena duen erakundea.

Eginda dauden urbanizazioetan hondakinaren bilketa pneumatikorako sistema ezarri ahal izango da, dagokion udalak eta Mankomunitateak arrazoi tekniko, ekonomiko eta/edo ingurumenekoengatik egokia dela hitzartzen badute, delako eremu horretan 3.000 etxebizitza baino gutxiago badaude ere.

Sistema honen ezaugarri eta espezifikazio teknikoak II. eranskinean daude.

IV. KAPITULUA. BILKETAREN BALDINTZAK ETA ERABILTZAILEAREN BETEBEHARRAK

21. artikulua. ERABILTZAILEAREN BETEBEHARRAK. Oro har, erabiltzaileak betebeharrak hauek izango ditu, bilketa dela-eta.

1. Etxeko hondakinak Mankomunitatearen esku jartzea, egoki bereizita, 23. artikuluan zehazten diren frakzio edo zatietan eta kapitulu honetan ezartzen diren baldintzetan.
2. Mankomunitateak une bakoitzean ezartzen dituen zabor edukiontzia indarrean dauden arauen eta ordenantza honen arabera erabiltzea. Hondakinak edukiontzien barnean uztea, erabili eta gero estalkiak itxita utzita.
3. Hondakinak tolestea edo zatikatzea, hala behar denean (kartoizko kaxak, zur gaiak, plastikoa eta abar).
4. Kalterik sor dezaketen hondakinak modu seguruan botatzea (beira laua, toska, latorria...).
5. Hondakin edukiontzia ongi erabiltzea, behartu edo hondatu gabe.
6. Erraustsak alde aurretik itzalita eta hoztuta uztea.
7. Ez eragozteko edukiontzia zamatzeko, husteko, mantentzeko, garraiatzeko eta garbitzeko lanak.
8. Ezinbesteko kasuetan, bilketa zerbitzua eman ezin denean, hondakinik ez ateratzea zerbitzua berriro bere onera ekarri arte. Dena den, denaren berri behar bezala iragarriko da.
9. Mankomunitateari ematea eskatzen duen informazioa arriskutsu izan daitezkeen hondakinaren gainean eta, halakoak badira, haien jatorriaren, ezaugarrien, helburuaren eta abarren gainekoa.

Behar bezala utzi ez diren hondakinak jasotzeari uko egin ahal izango dio Mankomunitateak, aurreko espezifikazioen arabera.

Sortutako hondakinaren jatorriak edo kantitateak justifikatzen duen kasuetan, Mankomunitateak exijitu ahal izango ditu baldintza bereziak, esate baterako edukiontzietan poltsa jartzea edo hondakinak ordutegi jakin batean botatzera behartzea.

Bilketa pneumatikoa ezarrita dagoen tokietan, erabiltzaileek, gainera, betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Kasu bakoitzean Mankomunitateak zehazten dituen konportak erabiltzea, indarrean dagoen legezko araudirekin eta ordenantza honekin bat eginez. Konportak eta/edo ontziak ongi eta egoki erabiltzea bilketa pneumatikoan, behartu eta hondatu gabe.
2. Hondakinak konporten barnean uztea, eta, erabili ondoren, konporta horiek ixtea.
3. Hondakinak botatzeari, mantentzeari, garbitzeari, kokatzeari eta abarri dagozkion eragiketarik ez eragozteko.
4. Inola ere ezin izango dira erabili isur-konportak, beren bolumenarengatik edo konfigurazioarengatik, bilketa pneumatikoaren sistema erabilezin utz dezaketen edo horri kalterik egin diezaizketen hondakinak botatzeko.

22. artikulua. BILKETA ZERBITZUEN SAILKAPENA. Ordenantza honetan ezarritakoaren eraginetarako, hondakinaren bilketa zerbitzua ohikoa edo berezia izango da:

- Ohiko bilketa: nahitaez eman beharreko zerbitzua, edukiontzi bidez, bost zati edo frakzioena (gai organikoak, papera-kartoia, ontziak, beira eta gainerakoak). Mankomunitateak gauzatuko du, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.
- Bilketa berezia: ohiko bilketarako edukiontzietara bota ezin diren etxeko hondakinak

biltzeko zerbitzua.

I. ATALA. OHIKO BILKETA

23. artikulua. BILKETA EREDUA. Hondakinen Plan Nazionalen eta 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakinen Planen ezarritakoaren arabera, etxeko eta merkataritzako hondakinen bilketako ereduak, Iruñerriko Mankomunitatearen esparruan era orokorrean ezarrita dagoenak, erabiltzaileak behartzen ditu beren hondakinak bost zati edo frakziotan aurkeztera:

- Gainerakoen frakzioa
- Gai organikoak
- Ontziak.
- Papera-kartoia
- Beira

24. artikulua. GAI ORGANIKOAK BILTZEA. Hauek joko dira gai organikotzat:

Hondakin biodegradagarria, etxeetatik, jatetxeetatik, jatetxe kolektiboko zerbitzuetatik eta txikizkako salmentako establezimenduetatik ateratzen diren elikagai eta sukalde hondakinak; orobat, elikagaiak prozesatzeko plantetatik ateratzen diren hondakin parekagarriak. Fruta eta barazki hondarrak, haragi eta arrain hondarrak, sukaldeko paper eta ezpainzapi zikinak, arrautzen eta fruitu lehorren oskolak, kafe eta infusio hondarrak, sukaldatutako janarien hondarrak, ogia eta janari iraungiak.

Gai organikoak esaten zaien hondakinen frakzioa helburu horretarakoak diren edukiontzien barnera bota beharko da. Edukiontzi horiek "gai organikoak baino ez" errotulua izango dute jarrita.

Biodegradagarriak diren poltsetan bota beharko dira hondakin horiek edo Mankomunitateak une bakoitzean erabaki eta zehazten dituen baldintzetan.

Bilketarako egun eta ordutegi espezifikoak ezarri ahal izango ditu Mankomunitateak, herrika. Nolanahi ere, alde zurretik horren berri emango die herritarrei.

Gai organikoen kantitate handiak sortzen dituzten kasuan, Mankomunitateak ezarri ahal izango du bilketarako sistema espezifiko bat.

25. artikulua. ONTZIAK BILTZEA. Ontziak, eta ontzien hondakinak (metal, plastiko eta brik ontziak) horietarako edukiontzietan utzi beharko dira, "plastikozko ontziak, latak eta brikak" errotulua ageri dutenetan.

26. artikulua. PAPERAKARTOIA EDUKIONTZIETAN BILTZEA. Paperak eta kartoia gai horietarako edukiontzietan utzi beharko dira, "papera eta kartoia" errotulua ageri dutenetan. Bolumen handiko kartoizko ontzi hondakinak tolestu edo zatikatu egin beharko dira, utzi aurretik. Papera eta kartoia garbiak egongo dira, plastikorik, metalik eta abarrik gabe.

27. artikulua. BEIRA EDUKIONTZIETAN BILTZEA. Beirazko ontziak gisa horretako hondakinak biltzekoak diren edukiontzietan utzi beharko dira. Poltsa, estalki edo tapoirik gabe egongo dira.

Debekatuta dago horrelakoak botatzea 22:00 eta 08:00 artean.

28. artikulua. GAINERAKOEN FRAKZIOKO HONDAKINAK EDUKIONTZIETAN BILTZEA. Gainerakotzat hau ulertzen da: gai organikoa izan gabe, inongo bilketa berezitan biltzen ez dena edo edukiontzi berezietan uzten ez den hondakinen frakzioa.

Etxeko hondakin industrialen kasuan, Mankomunitateak bildu ahal izango ditu hondakin horiek une bakoitzean ezartzen dituen bilketa sistemen bidez.

Gainerako hondakinen kasuan, sortzaileak kudeatu beharko du hondakinak tratatzeko zentroan utzi ahal izatea edo baimendutako kudeatzaile baten bidez tratatzea.

Gainerakoen edukiontzian uzten diren hondakin guztiak erabat ongi itxitako poltsatan utzi beharko dira, isurkirik ez botatzeko moduan, ez eta edukiontzia zikintzekoan, ez eta bide publikoa ere. Debekatuta dago poltsak edo kuboak lurrean arrastaka erabiltzea. Hondakinak behar bezala aurkeztu ez, eta horren ondorioz

isurketarik gertatzen bada, erabiltzaile eragilea izango da zikintze horren erantzulea. Inola ere ez da baimenik ematen horrelako hondakinak pakete edo kaxatan libratzeko.

II. ATALA. BILKETA BEREZIAK

29. artikulua. INAUSTE ETA LOREZAINZA HONDAKINAK BILTZEA. Inauste eta lorezaintza hondakinak Mankomunitateak horietarako jartzen dituen edukiontzian utzi behar dira, bestelako gairik gabe eta inoiz ere ez dira poltsatan sartu behar. Enborrak ez dira inoiz 20 zentimetroko lodiera eta 1,5 metroko luzerakoak baino handiagoak izango.

Zerbitzu hau herritarrentzat antolatuta dago, banaka edo taldean baliatua izan dadin, baina ez udalek edo lorezaintza gremioko profesionalek edo beste batzuek erabiltzeko. Hain zuzen, haiek Arazuriko araztegia eraman beharko dituzte inauste hondakinak.

Toki batean ez badago inauste hondakinak botatzeko edukiontzirik edo, gutxienez, edukiontzi bat betetzeko adinako inauste lanak egin behar badira, eskatu ahal izango da aldi baterako erabilerako zerbitzua, baldin eta alta eginda badago hondakinen zerbitzuan. Zerbitzu horretan edukiontzia hustu gabe egongo den denbora gehiena 15 egun izango da. Epe hori igaro eta gero, edukiontzia kendu egingo da eta ezin izango da berriro jarri 30 egun igaro arte.

30. artikulua. ETXEKO TAMAINA HANDIKOAK BILTZEA. Mankomunitateak mota orotako etxeko tamaina handikoen bilketa berezia egiteko zerbitzua antolatuta du, etxez etxekoa eta alde zurretik abisua emanda, salbu eta mugitzeko bitarteko mekanikoak, hala nola garabiak eta poleak, erabili beharra dagoenak. Altzariak desmuntatuta eta berehala garraiatzeko prestatuta egongo dira.

Debekatuta dago bide publikoan altzariak, etxeko tresnak eta traste zaharrak abandonatzea, eta bai edukiontzietan edo haien ondoan halakoak uztea ere.

31. artikulua. OSASUN ARLOKO HONDAKINAK BILTZEA ETA GARRAIATZEA. 296/1993 Foru Aginduekin bat eta ordenantza honen aplikazioaren ondorioetarako osasun arloko hondakinak I., II. eta III. multzoetan sailkatzen dira.

Ohiko bilketan soil-soilik I. multzokoak sartuko dira.

II. multzoko hondakinak bildu edo onartuko dira tratamendu zentroan, kaxa itxian eta trinkotu gabe.

III. multzoko osasun hondakinak, berriz, ezin izango dira ez bildu ez eta onartu ere tratamendu zentroan.

32. artikulua. ETXEKO ANIMALIA HILAK BILTZEA ETA/EDO JASOTZEA. Espezie guztietako animalien gorpuak landan uztea debekatuta dago, edozein lursail motatan, edukiontzietara botatzea eta jabego publikoko lurretan haiek erraustea.

Animalia hilak etxetik kanporatu behar dituzten herritarrek beren bitartekoak baliatuta (alor horretako enpresen bitartez, animalien klinikak) edo Mankomunitateak ezarritako zerbitzuen bitartez egingo dute, eta zerbitzu horiek jaso, garraiatu eta suntsituko dituzte egoki.

Hain zuzen, animalia hilak direla-eta, Mankomunitateak etxeko konpainiako animaliak jaso, garraiatu eta suntsitzen ditu, baten edo multzo osoaren pisua 100 kilogramo baino gehiago ez bada.

Hura jasotzea eskatu duenak etxeko konpainiako animalia poltsa itxi batean emango du. Poltsa erabat estankoa eta behar bezain hondagaitza izango da, apurtu ez dadin eta likidorik isur ez dadin.

Deskonposizio edo usteltze egoera aurreratuan dagoen animaliarik ez da jasoko.

Etxeko animalia hilak suntsitzeak ez die jabeei inola ere, beste ordenantza edo erregelamendu batzuek hala ezartzen dutenean, heriotzaren arrazoiak eta animalia baxa jakinarazteko beharra kentzen.

33. artikulua. IRUÑEKO ALDE ZAHARREKO SALTOKIETAN ATEZ ATE BILTZEA. Iruñeko Alde Zaharrean zaborrak biltzeko sistema pneumatikoa ezarrita dagoenez, inguru horretan saltokietako hondakinak biltzeko baldintza bereziak ezarri behar dira.

Iruñeko Alde Zaharreko saltoki guztiek erabili beharko dute Mankomunitateak ezarrita daukan atez ateko

bilketa bereziaren zerbitzua gai organikoak, beira eta papera-kartoia botatzeko.

Gai organikoak aurkezteko baldintzak hauek izango dira: bilketa horretarako Mankomunitateak emandako kuboetara botako dira beti. Poltsatan sartuta egongo dira, kuboak lokalaren sarreratik hurbil eta berehala eramanak izateko prestatuta egongo dira, Mankomunitateak kasu bakoitzean adierazitako egunean eta orduan. Saltokiaren ardura izango da dagokion kuboaren garbitzea.

Beira aurkezteko baldintzak hauek izango dira: bilketa horretarako Mankomunitateak emandako kuboetara botako da beti. Garbia egongo da, poltsa, estalki, tapoi edo horrelakorik gabe. Kuboak lokalaren sarreratik hurbil eta berehala eramanak izateko prestatuta egongo dira, Mankomunitateak kasu bakoitzean adierazitako egunean eta orduan. Saltokiaren ardura izango da dagokion kuboaren garbitzea.

Papera-kartoia aurkezteko baldintzak hauek izango dira: papera-kartoia saltokiko atearen ondoan utziko da. Garbia egongo da, beste hondakin batzuk gabe (plastikoa, zura...), behar bezala tolestuta eta lotuta egongo da, berehala bildu ahal izateko eran prestatuta, Mankomunitateak kasu bakoitzean adierazitako egunean eta orduan.

34. artikulua. PILAK BILTZEA. Pilak biltzeko zerbitzua ezarrita dauka Mankomunitateak, kolaboratzaileak diren saltokietan kokatuta dauden edukiontzien bidez –zerbitzu horrekin bat egin dezakete eskatzen duten guztiek– eta bai beira botatzeko edukiontzietan dauden biltoki edo ontzien bidez ere.

35. artikulua. ZURA BILTZEA. Mankomunitateak antolatuta dauka industrialdeetan zura biltzeko sistema. Zerbitzu hori astean 6 metro kubo baino zurki gehiago sortzen ez duten enpresa guztiei ematen zaie. Mankomunitateko zerbitzu teknikoek kasu bakoitzean bilketa zerbitzuei materia nola emango zaien erabakiko dute. Debekatuta dago beste bilketak egiteko edukiontzietara zura botatzea (gai organikoak-gainerakoak botatzekoan, papera-kartoia...).

36. artikulua. SALTOKIETAN LANDARE OLIO ERABILIA BILTZEA. Mankomunitateak ezarrita dauka etxeko olio erabilia kolaboratzaileak diren saltokietan biltzeko zerbitzua. Olioaren ontzi itxi batean utzi behar da (hobe da plastikozkoak izatea ontzi horiek), helburu horretarako dauden kuboetan eta "etxeko olio erabiliaren bilketa" errotulua dutenetan.

37. artikulua. SALTOKIETAN ELIKAGAIAK BILTZEA. Mankomunitateak ezarrita dauka kontsumitu daitezkeen baina salerosi ezin diren elikagaiak biltzeko zerbitzua. Hondakin horiek sortzen dituzten zentro guztiei ematen zaie zerbitzu hori.

Inola ere ez dira iraungita dauden produktuak bilduko, txarrak daudenak edo gizakiok kontsumitzeko egokiak ez direnak.

38. artikulua. GARBIGUNEETAN BILTZEA. Garbigune bat zenbait hondakin hartzeko, biltzeko eta sailkatzeko tokia da, eta bereziki beste bilketetan hartzen ez diren etxeko hondakin arriskutsuak eramateko tokia.

Mankomunitateak garbigune finkoak eta mugikorak eta landa-arloko garbiguneak ditu.

Garbigune finkoa: gutxienez, 160 metro koadroko azalera duen instalazio bat da, bertara erraz iristeko tokian kokatutakoa.

Garbigune mugikorra: Mankomunitatearen esparruaren barnean auzoak edo herriak atenditzen dituen ibilgailua da, egun eta ordu jakinetan. Garbiguneak emango duen bilketa zerbitzua aurretik ezarritako ordutegi baten arabera izango da, eta egokiak diren bitartekoen bidez emango zaie horren berri erabiltzaile guztiei.

Landa-arloko garbigunea: instalazio finko txikia, aurrez aurreko arretarik gabea. Etxeko hondakin arriskutsuak bota ahal izateko ahoak ditu, eta herri txiki batean kokatuta dago.

Etxeko hondakin arriskutsuak garbiguneetara eraman behar dira, eta, horrenbestez, debekatuta dago beste edozein motatako edukiontzietara botatzea.

Garbiguneak erabiltzetik kanpo daude enpresak edo industriak, mota horretako hondakinak baimendutako kudeatzaile baten bidez kudeatu behar baitituzte.

III. eranskinean dago garbiguneetara eraman daitezkeen hondakinen zerrenda eta kantitateak.

39. artikulua. ERAIKITZEKO OBRA TXIKIETATIK DATOZEN HONDAKINAK ETA ETXEKO KONPONKETETAKOAK BILTZEA

Herritarrek obra txikiko eraikuntzaren eta eraispenaren hondakinak eta etxeiko konponketetakoak, eguneko 50 kilogramoko kantitatea gainditzen badute, materialen arabera bereizita bota beharko dituzte, poltsa sendoetan, eta horiek eman ahal izango dizkiete, egoki kudeatzeko:

- a) Baimendutako kudeatzaile bati, edo
- b) Mankomunitateari, hondakinak tratatzeko zentroaren sarreran dagoen garbigunean, mota horretako hondakinak uzteko tokietan.

39 bis artikulua. EKITALDIETAN HONDAKINAK KUDEATZEA

Hiri-hondakinak kudeatzeko zerbitzua emateagatiko tributu-izaera ez duten ondare-prestazio publikoak arautzen dituen ordenantzan xedatutakoak arautzen ditu ekitaldietarako Mankomunitateak uzten dituen edukiontzia eta kuboak kokatu, kendu eta deskargatzeko zerbitzuak.

Ekitaldi publikoetan, administrazio publikoek babestu, antolatu edo diruz lagundutakoetan, edari ontziratuak saldu eta banatzearen alternatibak ezarri beharko dira, eta kasu orotan bermatu beharko da iturriko ura eskuratu ahal izatea, edalontzi berrerabilgarrien bidez, edo ura botila berrerabilgarrietan.

Ekitaldiak egitean, hondakinak era jasangarrian kudeatzeko sistema bat sustatuko du Mankomunitateak, hondakinak minimizatu, berrerabili eta gaika biltzea bultzatuko duena, "Zero Zabor Ekitaldiak" izeneko programaren bidez.

III. TITULUA. ETXEKO HONDAKINEN TRATAMENDUA

Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean ezarrita dagoenaren arabera (12.5.a artikulua), Mankomunitateari dagokio, nahitaezko zerbitzu moduan, etxebizitzetan, saltokietan eta zerbitzuetan sortutako etxeiko hondakinak tratatzea, ordenantza honetan ezartzen den moduan.

I. KAPITULUA. BALDINTZA OROKORRAK

40. artikulua. HELBURUA. Etxeko hondakinak tratatzeari ekiteko baldintzak arautzen ditu kapitulu honek. Etxeko hondakin horiek sortzaileek emandakoak dira, Iruñerriko Mankomunitatearen esparruan sortutakoak eta, Mankomunitatearen alde aurretiko baimena izanik, haren instalazioetan tratatu ahal direnak.

41. artikulua. ETXEKO HONDAKINAK TRATATZEA. Ulertuko da etxeiko hondakinak tratatzea dela haiek balorizatzen jotzen duten prozedura guztiak, berrerabiltzearen, birziklatzearen, balorizazio energetikoaren edo balorizatzeko beste metodo batzuen bidez, barne hartuta balorizatu aurretiko prestaketa, eta bai haiek ezabatzen jotzen duten prozedurak ere, zabortegira botata.

Lurzorurako, landareetarako eta animalien eragin kaltegarriak saihestuta egin beharko da tratamendua, paisaia andeatu gabe, airea eta urak kutsatu gabe eta, oro har, gizakion osasunerako eta ingurumenerako inolako kalterik egin gabe.

42. artikulua. DEBEKUAK. Debekatuta dago tratamendu zentroaren inguruan hondakinak abandonatzea. Etxeko hondakinen sortzaileak edo edukitzaileak behartuta daude Mankomunitatearen tratamendu instalazioetan ematera edo, egokia denean, beren kontura kudeatzera edo baimendutako kudeatzaileen bidez.

43. artikulua. BESTE JARDUNBIDE BATZUK. Bere ahalmenak gauzatzean, Mankomunitateak bultzatu, sustatu eta lagunduko ditu, bertako zerbitzu teknikoaren iritziz, hondar materialak berreskuratzea, berrerabiltzea eta balorizatzea helburu duten ekimenak.

II. KAPITULUA. ETXEKO HONDAKINEN SORTZAILEAREN/EDUKITZAILEAREN BETEBEHARRAK

44. artikulua. ERANTZUKIZUNA. Industria eta/edo merkataritza jatorriko etxeiko hondakinak sortzen dituzten edo dauzkaten pertsonak Mankomunitateari eman ahal izango dizkiote, hondakin horiek birziklatzeko, balorizatzeko edo ezabatzeko, ordenantza honetan zehaztutako baldintzetan. Ematen diren

unetik aurrera Mankomunitateak izango du hondakin horien titulartasuna eta hondakin horiek sor ditzaketen kalteen erantzukizunetik libre geldituko dira pertsonak, baldin eta hondakinak ematean ordenantza honetako xedapenak eta aplikagarria den gainerako araudia gorde badira.

Hondakinak sortu edo edukita eta garraiatzeko, tratatzeko edo ezabatzeko baimenik ez duen beste pertsona baten esku uzten dituztenak erantzuleak izango dira modu solidarioan hondakin horiek sor dezaketen edozein kalte edo galeraren aurrean.

Abandonatuta dauden hondakinak bildu, garraiatu eta tratatu ahal izango ditu Mankomunitateak eta hondakin horien erantzule diren pertsoneri egotziko die emandako zerbitzuen kostua, alde batera utzirik dagozkien beste erantzukizun batzuk.

45. artikulua. INFORMAZIOA EMATEA. Etxeko hondakinak sortzen dituzten, dauzkaten, manipulatzeko dituzten eta/edo garraiatzen dituzten pertsona guztiak behartuta daude Iruñerriko Mankomunitateari, haren eskumen esparruaren barnean, eskatzen zaien informazio guztia ematera. Zehazki, informazio hori delako hondakinen jatorriari, izaerari, osaerari, ezaugarriari, kantitateari, ebakutzeko moduari, aurrez tratatzeko sistemari eta behin betiko tratamenduari buruzkoa izango da.

46. artikulua. BESTE BETEBEHAR BATZUK. Mankomunitateak uste duenean etxeko hondakinek arriskutsu egiten dituzten ezaugarriak dituztela, indarrean dagoen araudiarekin batera, edo tratatzea edo ezabatzea zailtzen duten ezaugarriak dituztela, hondakin horien sortzailea edo edukitzailea behartu ahal izango du, hondakinak hartu aurretik, neurriak hartuz, ahal den neurrian, ezaugarri horiek ezabatzeko edo gutxitzeko, edo egokiak diren moduan eta tokian ematera.

47. artikulua. GARRAIOAREN BALDINTZAK. Tratamendu edo ezabatze instalazioetarainoko etxeko hondakinen garraioa jarraian deskribatzen diren moduetan eta baldintzetan egin beharko da:

- a) Garraioa, kaxa irekia duen ibilgailuan. Karga guztia estaltzeko olana, sarea edo maila erabiliko da, hondakinik eror ez dadin eremu publikora.
- b) Garraioa kaxadun ibilgailuan, trinkotuz edo trinkotu gabe. Egin beharko da atea behar bezala itxita daudela; kargatzeko ahoa ez da kaxatik aterako eta estalita edo itxita egongo da, horretarako atea, olana, sarea edo maila erabilita, hondakinik inola ere eror ez dadin eremu publikora. Garraioa, trinkotzeko kaxa duen ibilgailuan. Egin beharko da aterak behar bezala itxita daudela, eta kaxa husteko prestatutako posizioan; kargatzeko ahoa egongo da hondakinez guztiz garbi, edo, hartan hondakinik badago, estalita edo itxita egongo da, horretarako atea, olana, sarea edo maila erabilita, hondakinik inola ere eror ez dadin eremu publikora.
- c) erabilita, hondakinik inola ere eror ez dadin eremu publikora.

III. KAPITULUA. ETXEKO HONDAKINAK TRATATZEKO INSTALAZIOAK

48. artikulua. HONDAKINAK ONARTZEA. Hondakinak tratatzeko edo ezabatzeko instalazioetan haren esparru geografikoaren barnean sortutako etxeko hondakinak onartzeko dituzten Mankomunitateak, eta bai esparru horretatik kanpo sortutakoak ere, baldin eta aurretiaz hitzartzen bada.

Etxeko hondakinen gisako merkataritza eta industria hondakinak onartzeko, pertsona fisikoak edo juridikoak aurretiaz eskatu beharko dituzten Mankomunitateari onartzeko. Behin aztertzen duenean eskaera hori, erabakiko du komenigarria den edo ez hondakin horiek onartzea, eta, bere kasuan, baimenaren baldintzak.

Hondakinak tratatzeko bere instalazioetan hondakinak onartzea eta uztea arautzen duten erregelamenduak ezarriko dituzten Mankomunitateak.

Hondakin emate/uzte bakoitzak bere agiria izango du, Mankomunitateak egina, eta hondakin horiek sortu dituenak eta garraiatu dituenak behar bezala beteta eta zigitatuta.

49. artikulua. HONDAKINAK AURKEZTEA. Hondakinak aurkeztu beharko dira dagokion baimenean edo onarpenean agertzen den moduan eta eran, edo teknikariek une bakoitzean zehazten duten eran, dagokion instalazioaren zerbitzu erregelamenduan ezartzen diren eskakizunekin bat eginez eta **47.** artikuluan garraiatzeko ageri diren baldintzetan.

50. artikulua. INSTALAZIOEN ORDUTEGIAK. Etxeko hondakinak tratatzeko eta ezabatzeko instalazioen funtzionamendu ordutegia eta herritarrentzat irekita daudeneko instalazio bakoitzaren zerbitzu erregelamenduan xedatutakoa izango da, eta bai onarpen agirian edo onartzeko baimenean ageri dena ere.

51. artikulua. INSTALAZIOEN ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK. Hondakinak tratatzeko instalazioen erabilera eta funtzionamendu arauak, eta bai hondakinak onartzeko prozedurak, emateko/uzteko baldintzak, onargarriak diren eta ez diren hondakinak, eta abar haien zerbitzu erregelamenduetan daude garatuta.

IV. TITULUA. ZEHAPEN-ERREGIMENA

51 bis artikulua. SUBJEKTU ERANTZULEAK. Titulu honetan sailkatutako arau-haustetzat hartu ahal izateko egintzak gauzatu dituztelako zehatu ahal izango dira pertsona fisikoak eta juridikoak, eta bai, lege batek jarduteko gaitasuna aitortzen dienean, ukitutako taldeak, batasunak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta ondasun independenteak edo autonomoak, haien erantzuleak direnak, doloa edo errua dela-eta.

52. artikulua. ARAU-HAUSTEAK. Ondoko jarduera eta egoera hauek arau-hausteak izango dira:

1) BILKETARI DAGOZKIONAK

A. Arau-hauste arinak

- a) Hondakinak hartzea, behin dagokien eran utzi eta gero.
- b) Hondakinak gaika bereizi gabe uztea edo hondakin mota bakoitzaren edukiontzia edo gunea eta bilketa sistema ez den batean edo ordenantza honetan xedatutakoa bete gabe.
- c) Mankomunitateak ordenantza honen bidez ezarritako baldintzak, tokiak eta ordutegiak bete gabe uztea hondakinak.
- d) Hondakinak tolestu edo ataldu gabe uztea, kasuen arabera, bolumena murrizteko eta poltsen eta edukiontzien edukiera ahalik eta gehiena aprobetxatzeko.
- e) Edukiontziak mugitu edo tokiz aldatzea, Mankomunitatearen baimena izan gabe.
- f) Aurreko bi artikuluetan ezarritako arau-hausteetako bat egitea, zenbateko edo garrantzi urriagatik larri edo oso larritzat jotzea merezi ez duenean.

B. Arau-hauste larriak

- a) Edozein udal hondakin mota kontrolik gabe abandonatu edo botatzea, betiere pertsonen osasuna arrisku larrian jarri ez bada edo ingurumenean kalte edo hondamen larria eragin ez bada.
- b) Hondakinak estolderia sarera botatzea, arrisku larrian jarri gabe pertsonen osasuna edo kalte larria eragin gabe ingurumenerako.
- c) Hondakinen aurretratamendurako etxeko instalazioak egitea (trinkotzea, esate baterako), Mankomunitatearen baimena izan gabe, arrisku larrian jarri gabe pertsonen osasuna edo kalte larria eragin gabe ingurumenerako.
- d) Mankomunitatearen zaintza, ikuskapen eta kontrol jarduera oztopatzea, bai eta laguntza emateko betebeharrak, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legean ezarriak, ez betetzea ere.
- e) Edukiontzietan grafitiak egitea edo horiek margotzea, edozein motatako kartelak edo itsasokinak jartzea edo publizitatea egiteko erabiltzea. Erantzule zuzena edo subsidiarioa izango da egilea edo iragarlea.
- f) Udal hondakin ez arriskutsuak hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 legean, hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legean, hondakinen kudeaketan aplikagarriak diren gainerako xedapenetan eta ordenantza honetan agertzen ez diren pertsona fisiko edo juridikoei eman, saldu edo lagatzea, eta hondakin horiek arau hauetan ezarritakoak ez diren baldintzetan onartzea.
- g) Aurreko bi artikuluetan ezarritako arau-hausteetako bat egitea, zenbateko edo garrantzi urriagatik larri edo oso larritzat jotzea merezi ez duenean.

C. Arau-hauste oso larriak:

- a) Edukiontziak eta/edo haietako zeinahi elementu hondatzea.
- b) Bilketa pneumatikoko instalazioetako konportak eta/edo ontziak hondatzea.
- c) Zamatze, huste eta garraiatze lanak eragozte eta bai edukiontziak garbitzea ere, eta, oro har, zerbitzua emateak dakartzan beste jarduerak era batean edo bestean eragozte.
- d) Hondakinak estolderia sarera botatzea, baldin eta arrisku larrian jarri bada pertsonen osasuna edo kalte larria eragin bada ingurumenerako.
- e) Hondakinen aurretratamendurako etxeko instalazioak egitea (trinkotzea, esate baterako), Mankomunitatearen baimena izan gabe, baldin eta arrisku larrian jarri bada pertsonen osasuna

- edo kalte larria eragin bada ingurumenerako.
- f) Bilketa pneumatikoko edukiontzietara edo ontzietara hondakin arriskutsuak botatzea edo bilketaren helburu direnekin nahastea.
 - g) Bilketa pneumatikoko edukiontzietara edo ontzietara bildu ezin diren klinika hondakinak botatzea edo onargarriak direnekin nahastea.
 - h) Animalia hilen gorpuak edozein tokitan uztea eta jabetza publikoko lursailetan haiek erraustea.
 - i) Edozein motatako udal hondakinak abandonatzea edo kontrolik gabe botatzea, baldin eta arrisku larrian jarri bada pertsonen osasuna edo kalte larria eragin bada ingurumenerako.

2) TRATAMENDUARI DAGOZKIONAK

A. Arau-hauste arinak:

- a) Ordenantza honetan hitzartutako baldintzak bete gabe garraiatzea hondakinak.
- b) Aurreko bi artikuluetan ezarritako arau-hausteetakoren bat egitea, zenbateko edo garrantzi urriagatik larri edo oso larritzat jotzea merezi ez duenean.
- c) Tratamendua eragozten edo zailtzen duten hondakinak nahastea.

B. Arau-hauste larriak:

- a) Instalazioek behar bezala funtzionatzea eragozten duten egintzak edo huts-egiteak.
- b) Informazio, ikuskatze edo lagin-hartze lanak oztopatzea, bai sorburuan bai eta instalazioetan ere.
- c) Administrazio baimenik ez duten hondakinak ematea.
- d) Dokumentuak emateko betebeharra ez betetzea, aplikagarria den araudiak edo baimenean dauden xedapenek exijitutako datuak ezkutatzea edo faltsutzea, eta dokumentu horiek zaintzeko eta gordetzeko betebeharra ez betetzea.

C. Arau-hauste oso larriak:

- a) Hondakin toxikoak edo arriskutsuak ematea, hutsik edo beste hondakin batzuekin nahasita.
- b) Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legean edo ondorengo horren garapenetan ezarritakoaren aurka jokatzeko, arrisku larria edo pertsonen osasunerako kaltea eragin bada, ingurumenerako kaltea edo andeatze larria eragin bada edo jarduera eremu babestuetan egin bada.

Aurretik aipatu direnez gain, ordenantza honetan, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean edo ondorengo horren garapenetan ezarritakoaren aurkako edozein egintza edo huts-egite.

53. artikulua. ZEHAPENAK. Arau-hauste horiei aplikagarriak izango zaizkien zehapenak 3.00 euro artekoak izango dira, arau-hauste oso larrien kasuan, 1.500 euro artekoak, arau-hauste larrien kasuan, eta 750 euro artekoak, arau-hauste arinen kasuan.

Zehapenak mailakatzea 22/2011 Legean aurreikusita dagoenaren arabera egingo da.

54. artikulua. ZEHAPENA MURRIZTEA BORONDATEZ ORDAINDUTA. Isuna %50 merkeago ordaindu ahal izango da, zehapen prozedura abiarazi dela jakinarazi ondoko hogeita hamar egun natural igaro aurretik ordaintzen bada eta inpugnazio orori uko egiten zaiola dioen idazkia aurkezten bada.

Deskontuz ordainduz gero, prozedura bukatutzat joko da, ebazpen espresik eman beharrik gabe.

55. artikulua. ZEHATZEKO AHALMENA. Ordenantza honetan tipifikatutako arau-hausteak egiteagatik egingo den erantzukizun eskaria aldeztu aurretik zehapen espedientearen izapidetzearen ondorena izango da. Delako zehapen espedientearen 1398/1993 abuztuaren 4ko Errege Dekretuak arautzen du, Zehatzeko Ahalmena gauzatzeko Arautegia onartzeko.

56. artikulua. EBAZPENA EMATEKO EPEA. Prozedura hasi zenetik sei hilabete igaro badira eta ez bada zehatzen duen ebazpenik eman, hura iraungi egingo da eta jarduketak artxibatuko ditu ebazpena emateko organo eskudunak, edozein interesdunek eskatuta edo ofizioz.

Zigor juridikzioak gertaeren berri izanda prozedura bertan behera uzten bada, eten egingo da iraungitzeko epea, eta berriro abiatuko da sei hilabeteak egiteko behar duen denbora arte, irmo bihurtu eta

ebazpen judiziala organo eskudunari jakinarazi ondoren.

Artikulu honetan aurreikusitako arautzea prozedura sinplifikatuaren izapideak bideratzean ere aplikatzekoa izango da.

57. artikulua. LEHENGORATU BEHARRA. 1. Kasu bakoitzean bidezkoa den zehapena galarazi gabe, arau-hausleak konpondu egin beharko du eragindako kaltea eta hondatutakoa lehengora itzuli.

2. Arau-hausleak ez badu konpontzen eragindako kaltea ezarri zaion epean, organo eskudunak erabaki dezake isun hertsagarriak ezartzea, hurrengo artikuluan ezarrita dagoenarekin bat.

3. Era berean, bete ezean, Mankomunitateak exekuzio subsidioarioz gauzatu ahal izango du lehengoratze hori. Egin beharreko jarduketan kostuak arau-haustearen erantzulearen kargurakoak izango dira eta, hala behar denean, eragindako kalte eta galeren ondoriozko kalte-ordaina eskatu ahal izango zaio.

58. artikulua. ISUN HERTSAGARRIAK. Ezar daitekeen zehapena galarazi gabe, organo eskudunak erabaki dezake isun hertsagarriak jartzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1991 Legearen 99. artikuluari jarraituta.

V. TITULUA. ERREKLAMAZIOAK

59. artikulua. ERREKLAMAZIOAK. SCPSAren egintzak Mankomunitateko lehendakariaren aurrean inpu gnatu ahal izango dira, Harremanen Erregelamenduan aurreikusita dagoenarena arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen denetik, ezarri rik dauden eta aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen, araudi edo ordenantza guztiak indargabetuta egongo dira, inolako eragin edo baliorik gabe geratuz; bereziki, Hondakinak Kudeatzea Arautzeko Ordenantza, 2007ko otsailaren 7an argitaratua, 17. zenbakiko NAO n.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek bere behin betiko onesp ena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

I.- ERANSKINA – LURPEKO EDUKIONTZIAK JARTZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

- Mankomunitateak une bakoitzean onartu izandako ohiko bilketa, mantentze eta garbitasun sistemarekin bateragarria izan beharko du instalazioak.
- Obra eta aukeratutako sistema jartzeko inbertsioa udal eskatzailearen kargu izango dira.
- Bilketarako guneak kokatzerakoan eta instalazioaren ezaugarriak erabakitzerakoan
- Mankomunitatearen zerbitzu tekniko en oniritzia izatea beharrezkoa izango da.
- Lurpeko gune bakoitzean zer motatako edukiontzia k jarri eta haien gutxi eneko kopurua Mankomunitateko zerbitzu teknikoek erabakiko dute, eta bai gune horietako bilketaren maiztasuna ere.
- Urbanizazio berrietan, non lurpeko edukiontzia k jartzeko instalazioak eraikiko diren edo halakoak kokatzeko tokiak gordeko diren, udalak eta/edo sustatzaileak zehaztuko du gune bakoitzaren kokapena eta ezarriko den edukiontzi kopurua, Mankomunitateko zerbitzu tekniko en oniritziarekin betiere.
- Instalazioa garbitzea eta bertako mantentze lanak egitea udalaren kargu izango da. Mankomunitateak, kasu guztietan bezala, instalazioan jarritako edukiontzien garbiketaren eta mantentzearen ardura hartuko du.
- Hondakinak sartzeko ahoak Mankomunitateko zerbitzu teknikoek zehaztuko dituzten kolore eta ezaugarrien bidez identifikatuko dira.
- Bilketaren gainkostua (zamaketan erabiliko den gehiagoko denborarengatik) dena delako udalak ordaindu beharko dio Mankomunitateari.

- Instalazioa irekitzeko sistemak, eskuzkoa (giltza) edo automatikoa izan (urrutiko aginte bidezkoa), Mankomunitateko zerbitzu teknikoek onetsitakoa izan beharko du.
- Sistemaren akatsen baten ondorioz hondakinen bilketa ezin bada gauzatu, udalak ahalik eta lasterrera konpondu beharko du sistema, eta bitartean zerbitzu egokia bermatzeko beharrezkoak diren bitartekoak antolatu beharko ditu.
- Dagokion udalak gunea handitzeko konpromisoa hartuko du, ahalmen gutxiegi gelditu den kasu guztietan, bai saltoki gehiago ireki delako, hondakin gehiago sortzen delako edo beste edozein arrazoirengatik.
- Aukeratutako instalazioetarako kontuan hartu beharko da gune horiek bilketa sistema berrietara egokitu eta moldatzeko aukera (adibidez, albotik egiten den sistema).
- Lurpeko edukiontzia ezartzeko baimena ematen den aparteko kasuetan, Iruñerriko Zerbitzuetako teknikariek instalazioaren gainean txostena egingo dute eta, ezarritako baldintzak betetzen badira, udalak eta SCPSAk kontratua sinatuko dute Mankomunitateak instalazioaren kudeaketa egin dezan.

II.- ERANSKINA – BILKETA PNEUMATIKOAREN ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK

1.- DEFINIZIOAK

Ordenantza honetan ezarritakoaren eraginetarako, definizio hauek hartu beharko dira aintzat:

“**Isur-gunea**”: hondakinak isurtzeko tokia. Horman edo etxe aurrealdean sartuta egon daiteke (konporta) edo bide publikoan (ontzia), kale-plazetan. Hondakinak aldi baterako hartu eta biltegitzeko behar diren mekanismo guztiak barne hartzen ditu, hondakin balbula, zorrotena, ontziak, konportak...

“**Ontzia**”: bide publikoko edo kale-plazetako espaloian kokatuta dagoen isur-gunea.

“**Konporta**”: eraikinaren aurrealdean edo barnean kokatuta dagoen isur-gunea. “**Zorrotanak**”: isur-konportak eta hondakin-balbulak lotzen dituzten tutuak.

“**Balbula gela**”: isur-guneetako mekanismo guztiak kokatuta dauden gelatxoa (ontziak eta konportak izan ezik), eraikin baten barnean dagoena.

“**Balbula ganbera**”: isur-guneetako mekanismo guztiak kokatuta dauden gelatxoa (ontziak eta konportak izan ezik), bide publikoan eta lurpean dagoena.

“**Hondakin gela**”: isur-konportak dauden gelatxoa, eraikin baten barnean dagoena.

“**Hondakin balbula**”: garraiatzeko sare nagusia eta isur-guneetako zorrotanak bereizten dituzten elementuak, husteko sistema aktibatzen denean irekitzen direnak.

“**Lotura-adarra**”: sare pneumatikoaren deribazioa, tutu nagusitik isur-guneerainokoa. Barneko edo kanpoko sarekoak izan daitezke:

Kanpoko lotura-adarra:

- Zoru publikoan barrena hedatzen da.
- Tutu nagusitik (lurpekoa edo galeria batekoa) lurzati pribatuaren mugaraino doan adarra da.
- Lurpean egongo da eta behar bezala buxaturik utzi beharko da behin betiko lotura egin arte.

Barneko lotura-adarra:

- Zoru pribatuan barrena hedatzen da.
- Lurzatiaren mugatik isur-guneraino doan adarra da.
- Kanpoko eta barneko lotura-adarren arteko lotunea hartzen du barne.

“**Bilketa-gune nagusiak**”: hondakinak xurgatzeko behar diren ekipamendu guztiak jartzen diren eraikina. Han bereizten dira garraiatzeko airetik eta trinkotzen dira edukiontzien barnean. Gune honetatik hornitzen dira seinalea eta sistema osatzen duten elementu guztiei eragiteko aire konprimitua, erabat autonomoa izan dadin, soilik horniketa elektrikoa behar baitu gune nagusiak.

“**Garraiatzeko sarea**”: hondakinak isur-gunetik eta bilketa-gune nagusira garraiatzeko behar diren elementuek osatzen duten sarea.

“**Sektorizazio balbula**”: garraiatzeko sarea hainbat sektorek osatuta dago, eta sektorizazio balbulek horiek itxi eta ireki egiten dituzte.

“**Barneko sareak**”: eraikinen barnean edo lurpeko ganberetan kokatuta dauden elementuak (zorrotanak, konportak, balbulak eta abar).

“**Sare pribatuak**”: jabeek eraikinetan instalatzen dituzten elementuak, barneko sareei gehituta, isur-guneak eta beren zorrotanak ugaritzeko (esate baterako, eraikin batean isurtze-konportak solairu bakoitzean).

“**Etxebizitza baliokidea**”: baliokidetasun unitatea, hondakin sorrera kalkulatzeko erabilitakoa, 3,2 lagun bizi diren etxebizitza baten produkzioaren adinakoa.

2.- ISUR-GUNEEN KOKALEKUAK

Urbanizazio berrietan hondakinen isur-guneak toki hauetan instalatuko dira: eraikinaren aurrealdeetan, eraikinaren barnean, auzokide guztiak eta zerbitzu teknikoak sartzeko moduan, lurzati pribatuaren mugan, lurzatia itxeko horman integratuta.

Inola ere ezin izango dira urbanizatzean egin gabe utzi eta isurtze konportak izango dituzte. Aire sartzeko balbula ez da inola ere elementu bakartua izango.

Etxebizitza familiabakarrak dauden guneetan, isurtze konportak egoteko elementuak eraiki ahal izango dira bide publikoan. Inola ere ez da ontzirik jarriko bide publikoan. Bilketa gune bat osatzen duten elementu guztiak (balbulak, zorrotanak...) lurpeko gela batean jarri behar dira, eta instalazio mota honetarako beharrezkoak diren ezaugarriak eduki behar dituzte.

Instalazio berean elkar daitezke halako batean isur-konportadun sareak, eraikuntza berrietakoak, bide publikoan dauden ontzi-sareekin, lehendik eginda dauden eraikuntzetakoak, hauek bilketa sistema aprobetxatu baitezakete, SCPSAko zerbitzu teknikoaren txostenak hala gomendatu badu.

Gune kontsolidatuetan, ontziak bide publikoan jar daitezke, bakarrik aurrealdeetan isur-gunerik ezin bada jarri.

3.- INSTALAZIOAREN DISEINU IRIZPIDEAK

Bilketa pneumatikorako instalazio baten diseinua egiterakoan kontuan hartu behar diren irizpideak hauek izango dira, gutxienez:

a) **Bilketa zatiak edo frakzioak.** Beira zatia gaur egun sistema honen bidez ez denez biltzen, isur-gune bakoitzak hiru isur-aho izango ditu, erabiltzen den bilketan ezarritako kolore kodean ongi bereizitakoak.

- Gai organikoak eta gainerakoak: BERDEA RAL 6005
- Papera - kartoia: URDINA RAL 5015
- Ontziak: HORIA RAL 1003

Isur-aho kopuru handiagoa behar den kasuetan, SCPSAko zerbitzu teknikoek teknikoki justifikatu eta onetsi beharko dute.

Beira lur gaineko edukiontzien bidez bilduko da edo atez ateko bilketa sistema baten bidez. Mankomunitateko zerbitzu teknikoaren ardura direnez balbula geletan dauden mekanismo guztiak eta eraikinen barnean daudenak, izendatutako langileek sarbide librea izango dute gela horietara.

b) **Hondakinak sortzea.** Hondakin bilketa pneumatikoko sarea diseinatzeko beharrezkoa da hondakinen bolumen osoa kalkulatzeko, hartara, hondakin balbula kopurua zehaztu ahal izango baita, bai eta zein maiztasunez hustuko diren ere.

Eraikin bakoitzean beharrezko diren balbulen kopurua jardueraren araberakoa izango da, baliokidetzat taula honi jarraituta.

Jarduera mota	Parametroa
Etxebizitza	1 EB*
Jatetxeak	1 EB / 20 m ²
Saltokiak	1 EB / 50 m ²
Bulegoak	1 EB / 100 m ²
Zerbitzuak	1 EB / 100 m ²
Hotelak	1 EB / 200 m ²
Ikastetxeak	1 EB / 200 m ²
Dotazionala	1 EB / 100 m ²

* EB = etxebizitza baliokidea

- c) **Isur-guneen arteko distantzia.** Irizpide nagusi moduan, erabiltzaileek ez dute eraikinaren ataritik 60 metro inguru baino gehiago ibili behar izango hondakinak botatzeko. Etxebizitza familiabakarrak dauden tokietan eta/edo etxebizitza dentsitate txikia dagoen eraikinetan gehieneko distantzia 100 metrokoa izango da.

Aldez aurretik, txostena egiteko fasean, SCPSAk isur-gune, konporta eta ontzi kopurua eta horien kokapena ezarri edo horien aldeko onespina eman beharko du.

- d) **Etxebizitza kopurua isur-gune bakoitzeko.** Isur-gune bakoitzeko etxebizitza baliokide kopurua, gutxienez, 30ekoa izango da. Ibili behar den distantzia 6. atalean zehaztutakoa baino handiagoa denean, zerbitzatutako etxebizitza kopuru txikiagoa onartu ahal izango da.

4.- INSTALAZIOEN DESKRIBAPEN OROKORRA

Hauek osatuko dituzte instalazioak:

- a) **Bilketa-gune nagusia.** Urbanizazio proiektuak hondakinak biltzeko garraiatzeko sarea eta atendituko den eremurako ahalmen nahikoa izango duen bilketa-gune nagusia egitea garatu behar ditu.

Bilketa-gune nagusiak, gutxienez, bost edukiontziz hornituta egon beharko du, 25-30 metro koadroko edukierakoak, haietako hiru aipatu den hondakin zatien edo frakzioen biltegi gisa egiteko eta beste biak erreserba gisa erabiltzeko.

Bilketa-gune nagusiko oinarritzko ekipamenduak ondoren zerrendatuta daude:

- Erauzketa sistema: turboerauzgailuak.
- Hondakinak bereizteko sistema: zikloia, bereizgailu birakaria eta abar.
- Hondakinak trinkotzekoak.
- Hondakinen edukiontziak.
- Edukiontzien barne garraiatze sistema.
- Aire iragazteko eta arazteko instalazioa.
- Airearen lastertasuna kontrolatzeko gailuak.
- Aire konprimatuko instalazioa.
- Guneko tutueria sarea.
- Laguntzarako instalazioak.
- Kontrolerako ekipoa: kontrol panelak.

Bilketa pneumatikoan beharrezkoak diren ekipamenduak kokatzeko egokieraz gain, instalazioen diseinuan toki hauek eraikitzea ere kontuan hartu beharko da:

- aldagelak egiteko guneak, gizonentzat eta emakumeentzat bereiz, eta bakoitza, gutxienez, lau lagun sartzeko modukoa.
- komunak, gizonentzat eta emakumeentzat bereiz.
- gune bat jantoki-atseten gela jartzeko, instalazioko langileentzat.
- bilerak egiteko gela bat, gutxienez, hamar lagun sartzekoa.
- biltegi bat.
- kontrol areto bat.
- trinkogailu-gela bat.

- turboerauzgailuen gela bat.
- hondakin-zikloien gela bat.
- iragazki gela bat.

Lurzatiaren urbanizazioan irizpide hauek kontuan hartuta egingo da diseinua:

- Lurzatiko alde lauan aparkaleku estalia egiteko tokia, bost ibilgailu sartzeko modukoa.
- Lurzatia hesituko da perimetro guztian zehar, barnera sartzea eragozteko.
- Alde lauaren konfigurazioa egitean, edukiontziak zamatu eta hustu ari diren kamioien maniobra ahalik eta txikiena izan eta lurzatiaren barnean egin dadin egingo da.
- Ez eraikinik eta ez zoladurarik ez duten lurzatiko azalera lorategi-zona gisa egokituko da.
- Ikus-babesa. Lurzatiaren perimetroko hesidura guztian landare-pantaila landatuko da.

b) Garraiatzeko sarea. Karbono-altzairuzko tutuaz eginda egongo da, 500 mm-ko diametrokoa. Tutuaren lodiera zehaztea garrantzi handiko faktorea izango da, hondakinak tutuerian lastertasun handian ibiltzeak higadura nabarmena eragiten baitu. Lastertasun handi horrengatik beharrezkoa da sareko ukondoek eta adarrek behar bezalako ezaugarri geometrikoak, mekanikoak eta erresistentziakoak izatea.

Sarea zenbait sektoretan zatituta egongo da, xurgagailu kopurua optimizatzeko. Sektorizazio- balbulak ezarriko dira, tutueria saretik adar nagusiak isolatuko dituztenak, bilketa egiten denean sektoreen estankotasuna bermatuz.

Ikuskatzea, maniobra eta isurtzea egiteko fabrika-obrak hauek dira:

- Ikuskatze-konportarako kutxatilkak
- Sekzionamendu-balbulen kutxatilkak
- Balbula-ganberak

Funtzionamenduan akatsik gertatuz gero tutuan sartzeko aukera izateko, sarea 70 metroz behin arakatzeko modukoa izango da. Bai sekzionamendu-erregistroak, bai eta arakatzeko-erregistroak ere, estalkia izango dute tutuan bridatua, arakatu ahal izateko.

Fabrika-obrak hormigoitako armatuzkoak izango dira, eta horretarako indarrean den IHE Egiturazko Hormigoitako Instrukzioak ezartzen dituen arauak beteko dira.

Fabrika-obretan, gutxienezko neurri hauek baliatuko dira:

Erregistroa	Zabalera (mm)	Luzera (mm)	Altuera (mm)	“e” horma (mm)	Sarbide-ahorearen neurria (mm)
Ikuskatzea					
Soilik erregistroa	1200	1200	2600	200	Ø 600
Sekzionamendua					
Balbula Ø 500 zutikakoa	1500	1800	2600	250	700 x 700
Balbula-ganbera					
3 ontzi	2000	6000	2600	200	1000 x 1000
3 ontzi x aire-balbula	2000	7200	2600	200	1000 x 1000

c) Isur-guneak. Tutueriaren adar bakoitzaren muturrean aire-balbula bat jarriko da. Korrantea sortzeko sisteman airea sartzeko erregulatuko du.

Isur-guneek elementu hauek izango dituzte:

- Aire-balbula.
- Isilgailua.
- Hondakin balbula.

- Kontrol modulua.
- Konporten eta hondakin balbulen arteko zorrotena.
- Konportak edo ontziak.

d) Balbula ganberak edo gelak. Balbula ganberak edo gelek ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Gutxieneko neurriak: 6 x 2 x 2,6 m.
- Suteen aurka indarrean dagoen arautegia betetzea.
- Hondakin balbularen gela baten gutxieneko aire-sarbidea 0,40 m²-koa izango da, aire-balbularik ez badauka, eta 1,00 m²-koa, aire-balbula baldin badauka.
- Gela apartakaleku gune batean baldin badago, sistemaren funtzionamendurako behar den airea sotoan bertan har daiteke. Kasu horretan, konporta su-ebakitzaila ezarriko da, RF- 60 ireki sailkapeneko, 70 graduko tenperatura gaitzen denean ixten baita, ke- detektagailua edo antzekoa duen malgukia askatuaz. Konporta ixtean, bilketa-gune nagusira alarma-seinalea igorriko da eta konporta su-ebakitzaila itxirik duten hondakin- geletan sistema deskonektatu egingo da.
- Airea kanpotik hartzen duten geletan eta/edo ganberetan ez da su-ebakitzailerik ezarri beharko, zuzenean sistemara sartuko baita. Hormak eta sabaia egin behar dira, gutxienez, 300 mm.c.a. azpipresioari, ½ oinbeteko adreiluari dagokiona, eusteko moduko neurritan.
- Gelek eta/edo ganberak argiztapenez hornituta egon behar dute, lur-hargunedun korrontelotuneaz, langileren batek zereginen bat egin behar badu ere.
- Zoruek leunduta eta margotuta egon behar dute. Zoruaren eta hormaren arteko junturak kurba batez egina izan beha du, gela hobeki garbitu ahal izateko.
- Hormek garbigarriak izan behar dute.
- Zoruan sifoi-hustubidea egongo da, muridoen aurkakoa.
- Geletara sartzeko ateeak, gutxienez, metro bat zabal izan behar dute kanporantz irekita, eta suaren aurka, gutxienez, RF-60 erresistentziakoak.
- Argiztapen artifiziala izan behar dute eta horrek zorutik metro baterako altueran, gutxienez, 100 lux argitu behar du.
- Ur hornidura.
- Balbula-gelako sarraila maisu sarraila izango da, “kontagailuen geletan” SCPSAk erabiltzen duen modeloaren berdina.

e) Barneko sareak. Barneko sareek etxebizitzaren eraikuntzarako proiektuan zehaztuta egon beharko dute. Isur-gune kopurua sortutako hondakin kopuruari egokitu zaito, eta bai sortzaileek zaborra botatzeko ibili beharko duten distantziari ere (27. artikulua).

Bilketa pneumatikorako sistemaren barneko sareen diseinuan irizpide hauek izan beharko dira kontuan:

- Isur-gune bakoitzean 3 hondakin balbula eta isurtzeko konporta jarri beharko dira, hondakin zati edo frakzio bakoitzeko bat.
- Onartuko den gehieneko desbiderazio bertikala 30° izango da.
- Zorrotenean barneko diametroa ez da balbulen irekierakoa baino handiagoa izango.
- Zorrotena-balbula junturek “ez zurruna” motakoak zian behar dute (neopreno edo antzekoa) eta estankokoak. Ez da gillotina-balbularik instalatuko, eta balbularen beraren eragiketa ere estankoa izango da.
- Barneko tutuak solairuari brida metaliko batez lotuko zaizkio; brida horiek UPN-140 profilekoak izango dira eta tartean neopreno xafla izango dute, tutua solairutik isolatzeko eta hots transmisioa ekiditeko.
- Sabaiko euskarriak tutua erabat urez beteta dagoen karga baterako kalkulatu dira.
- Sabaiko ukondoak fluxuaren norabide aldaketako indarrerako kalkulatu dira.
- Tutuek RF pintura izango dute, kokatuta dauden giroaren arabera.

Bilketa pneumatikoko instalazioak eraikitzekeo materialen espezifikazioak ordenantza honi gehituta daude l. eranskinean.

5.- INSTALAZIOEN HARTZEA

Instalazioak bere osoan, bai sare nagusiak, bai gune nagusiak, bai isur-konportek eta abarrek SCPSAren

zerbitzu teknikoaren ikuskerak eta onarpenak jasotzeko behar izango dira.

Indarrean dagoen legeak aurreikusten dituen baimen-emate guztiak aurkeztu behar dira, instalazio osorako eta bai osagai guztietarako eta bakoitzerako ere.

Proiektuek hondakinen bilketa pneumatikoko instalazioari buruzko eranskina eduki behar dute, SCPSAk onartu beharrekoa. Eranskinaren agiriaren artean, gutxienez, hauek egongo dira:

- Instalazioaren planoak.
- Ekipo mekanikoen eta kontrolen deskribapena.
- Sortutako zabor kantitatearen eta distantzia baldintzen arabera, balbula kopura eta balbula moten justifikazioa.
- Neurketa.

a) Balbula gela eta barneko sareen hartzea: Instalazioaren hartzerako, jabeak eskatuko dio SCPSAri hartzeko eta dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte.

Sustatzaileak aurkeztu beharreko dokumentuak:

i) Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietateari hartzeko eskaera, hauek zehaztuta:

- Lursaila
- Sustatzailea
- Etxebizitza kopurua

ii) Balbula gelaren, adarkatzearen eta ontzien egokitasun dokumentua eta eraikitze proiektua, enpresa esleipendunak egiaztatua.

iii) Soinu igorpenen proben plangintza, Eraikuntzako kode teknikoa betetzen dela egiaztatzeko. Plangintza horrek hauek izango ditu, gutxienez:

- Gelaren eraikitze txostena (materialak, isolamendua...).
- Hautetako soinu neurketak: balbula gela, bilketa guneak (ontziak), balbula gelatik gertuen dauden etxebizitzak. Egunez eta gauzez egin behar dira neurketa horiek, eta kreditatutako saio laborategi batek egiaztatuta behar dituzte.

Balbula gelak bizilagunen elkarrekin dagoen beste edozein espazio bezala.

Balbula geletara joateko bide zorra dago, ezinbestekoa baita Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietateak mantentze lanak egiteko.

Bide zor hori idatziz jasoko da jabeek egin, sinatu eta Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietateari bidaliko dioten agirian.

Balbula gela sartzeko behar diren giltzak emango dizkiete jabeek. Bizilagunen elkarrekin kontratatuko du balbula gelako ur hornidura.

Behin hori jasota, SCPSAko teknikariek berrikusiko dute instalazioak betetzen dituen edo ez beharrezko baldintzak, eta, betetzen baditu, emango dute.

Ez baditu betetzen, bizilagunen elkarrekin jakinaraziko zaio zein akats detektatu diren. Behin elkarrekin akats horiek konpondu dituztenean, berriro eskatuko dio SCPSAri berrikusteko.

6.- USTIATZEA ETA MANTENTZEA

SCPSAk, instalazioa hartu eta gero, zerbitzua bere gain hartuko du, eta, hortaz, instalazio guztiaren mantentze lanak, sare nagusiarenak eta instalazioaren barneko sareak.

SCPSAren zerbitzu teknikoak edo baimendutako langileak izango dira bilketa pneumatikoko instalazioen zaintza, mantentze lanak eta berritzeak egiteko arduradun bakarrak, bilketa-gune nagusitik, garraiatzeko sare nagusitik, areto, gela eta abarretatik bide publikoan jarrita dauden ontzi edo konportetaraino.

Sare pribatuak diren kasuetan, eraikinen barneetan dauden konportak, dagozkien zorrotzenak, beharrezko lotuneak eta barneko sarearen elementu gehigarri guztiak jabetzaren ardurapekoak izango dira.

7.- BILKETA PNEUMATIKOKO INSTALAZIOAK GAUZATZEKO MATERIALEI BURUZKO ESPEZIFIKAZIOAK

a) Tutu zuzenak eta tutu zuzenezko piezak

Tutu zuzenak eta tutu zuzenezko piezak karbono-altzairuz egindakoak izango dira, 498 mm-ko barne diametrodunak, HELIXWELD motako makinan helikoidalki soldatuak, barne eta kanpo soldadura arku murgilduzko prozeduraz egina, kordoi bikoitzaz.

Tutu pneumatikoaren asenturako seinale eta aire konprimituko kablea 3-5 gravillin motakoa izango da, birrinketaz ekoizitakoa.

b) Tutuak fabrikatzeko materiala

DIN 17.100 araupekoa.

Altzairuaren dentsitatea $7,85 \text{ kg/dm}^3$ ere onargarria da. Altzairuaren kalitatearen laburtzapenak DIN 17.006 aruari dagozkionak dira, eta materialen zenbakiak DIN 17.607 aruari dagozkionak.

Ezaugarri geometrikoak hauek dira:

- Barne diametroa 498 mm
- Hormaren lodiera: 5 eta 20 mm bitartekoa (justifikatua zatien arabera).

Erabili beharreko altzairuaren kalitateak hauek izango dira: R-37-2, nazioarteko zenbakia 10.114, EURO-NORMAn Fe 37 (Fe 42) – B3FN izendapenaren baliokidea baita.

Ezaugarri mekanikoak hauek dira:

- Trakzioarekiko erresistentzia 37 eta 45 kg/mm^2 bitartekoa
- Isurpen muga 24 kg/mm^2
- Luzapena hausturan %25

Konposizio kimikoa hau da:

- Karbonoa %17 gehienez
- Fosforoa 0,050 gehienez
- Sufrea 0,050 gehienez
- Nitrogenoa 0,007 gehienez

c) Neurriak eta perdoiak

DIN 1626 $\text{h}^2/65$ arauetan zehaztutakoari egokituko zaizkio.

d) Ukondoak

Ukondoak karbono-altzairuzko kurba biribil jarraikiaz egindakoak izango dira, tutu zuzenen atalean zehaztu bezala helikoidalki soldaturiko tutuak baliatuz fabrikatutakoak.

Hormaren lodiera 8 eta 18 mm bitartekoa izango da, instalazioaren zatien arabera.

2.000 kg/egun baino karga gehiago ibiltzen deneko ukondoak 400 Brinnell-eko gogortasuna baino handiagoa duen materialez egindakoak izango dira.

Bereziki lodiera handiak direnetan, onargarri da luzetarako soldadura. Kasu horretan erradio luzeko soldadura ez da ametituko, gutxienez 2,5 m-koa izango baita.

Ukondoaren kurbatura 15° , 20° , 30° , 45° , 60° , 75° eta 90° izango da. Materiala, DIN 17.100 arauak dioenez,

St 52.3 izango da, nazioarteko zenbakia 1.0841 bereziki baretutakoa, RR espezifikazioa duena, eta ondorengo kopuru baliokideak ezaugarri dituena, FE 52-C3, FE 52-D3 Euronormak dioenez:

Erresistentzia mekanikoak:

- Trakzioarekiko erresistentzia 52 eta 62 kg/mm² bitartekoa
- Isurpen muga..... 36 kg/mm²
- Luzapena hausturan %22

Konposizio kimikoa:

- Karbonoa %22 gehienez
- Fosforoa 0,045 gehienez
- Sufrea 0,045 gehienez
- Nitrogenoa 0,005 gehienez

Silizio edukia ez da izango %0,55 baino handiagoa, eta manganesoak ez du %1,50 gaindituko.

Tutuak kurbatu beharko dira beren konposizioari, ezaugarri mekanikoei edo lodiera eta formari eraginik egin gabe. Azken hori ahal den neurrian egingo dela onartzen da, eta ondoren zehazten diren mugen barnean:

- Kurbadura erradioa, ardatzean neurtua, ez da 1.500 mm baino txikiagoa izango (erradio handiagoak onartuko dira; ez, ordea, txikiagoak).
- Alderik ahulenean gertatzen den horma lodiera galtzea ez da inoiz ere %10 baino handiagoa izango.
- Muturretako obalatzea ez da inoiz ere %3 baino handiagoa izango.
- Bi parametroetarako azken magnitudea kontsideratzen da tutuaren perdoia eta tutuaren toleste eragiketaren batuketa.
- Tolestea indukzioa eta trakzioa batean egiten dituen makinaz egingo da.
- Ez da onartuko tutuaren kurbaduraren barneko aldean zimurdurarik egotea.
- Azal tratamendua dagokion espezifikazioaren arabera egingo da.

e) Altzairuzko RAEX ukondoak

Altzairu berezi soldagarrizko ukondoak, gogortasun handikoak (450 Brinell baino gehiago) RAEX motakoak:

- Barne diametroa 498 mm
- Hormaren lodiera 15 mm
- Kurbadura jarraituaren erradioa 1.500 mm gutxienez
- Azal tratamendua "Tutu zuzenak" atalean dagoenaren arabera

f) Altzairu arruntezko erremateak

Tutu zuzenez fabrikaturiko piezak, honela osatuak: 2,5 metroko zati nagusia eta 1,5 metroko lotura zatia. Lotura angelua 30°-koa izango da, elektrodo estalizko lotura soldatuaz egina. Piezaren hiru muturrak alakatuak izango dira, soldatu ahal izateko.

Barne diametroa 498 mm-koa izango da, eta lodiera aldakorra, 5 eta 20 mm bitartekoa. Azal tratamendua dagokion espezifikazioan aipatuta dago.

g) Hardox tutuadar berezia

30°-rako tutuadarra, 2,5 m-ko zati nagusia eta 1,5 m lotura zatia, Svenskstal-en HX-400 araukoa, gutxienez 380 Brinell-eko gogortasuna duena.

Azal tratamendua dagokion espezifikazioan aipatuta dago.

h) Urtuzko piezak, urragogorak, Ni-Hard motakoak

Espezifikazio hau burdina zuri urragogorraren urtzeari buruzkoa da, jeneralean Ni-Hard deitzen dena (nikel gogorra) eta ASTM-A-532-k arautzen duena.

Urtze mota

Erabiliko den urtze mota Ni-Hardtype 1 izango da, edo ASTM clase I-A Ni-ev-HC, baliokidea baita. Ez da baztertzen beste konposiziotako urtze motarik, bete beharrezkoa gutxieneko gogortasun maila besterik ez baita.

Konposizio kimikoa

- Karbonoa %3,0 eta %3,6 bitartean, pisuan
- Nikela..... %4,2 eta %4,7 bitartean, pisuan
- Kromoa %1,4 eta %4,7 bitartean, pisuan
- Silizioa %0,5 eta %0,8 bitartean, pisuan
- Manganesoa..%0,3 eta %0,7 bitartean, pisuan (gehienez, 1,3)
- Burdina Balantzea

Konposizio hori gogortasunaren erantzule subsidiarioa da.

Ezaugarri mekanikoak

Urtuan:

- Muga elastikoa – haustura 40.000 – 50.000 psi 2.700 – 3.400 kg/cm²
- Brinell gogortasuna..... 500 – 65

Urtu epelean:

- Muga elastikoa – haustura.....80.000 psi 5.400 kg/cm²
- Brinell gogortasuna..... 700

Piezen konformazioa

Piezak moldean urtu behar dira jardunbide egokiari jarraituta, eta planoan zehaztuta dauden formak eta perdoiak bete behar dituzte.

Haien ezaugarri geometrikoak hauek izango dira:

- Barne diametroa 498 mm
- Hormaren lodiera..... 25 mm
- Kurbaduraren erradioa 2.000 mm

Moldetik atera direnean, ahoak perdoien arabera mekanizatzeari ekingo zaio. Ondoren piezak berotzea dator, beharrezkoa baldin bada, 500 Brinell graduko gogortasuna lortzeko.

Ez da onartuko oklusiorik, leizerik edo arraildura eta irudirik urtutako piezetan. Era berean, ezin izango da onartu barneko aldean bizarrak edo moldeko lotuneak izatea, 1 mm baino handiagoak. Ez zaie azal tratamendurik egingo.

Akoplamenduak

Akoplamenduak DRESSER motako ahokadura poleaz edo antzekoren baten bitartez egingo dira, 582/532 mm-ko diametrokoa, tutu zuzeneko Ni-Hard motako piezetarako, kanpo diametroa 532 mm-koa dutenak.

Akoplamenduak DRESSER motako doikuntza poleaz edo antzekoren baten bitartez egingo dira, 582/582 mm-ko diametrokoa, Ni-Hard/Ni-Hard motako piezetarako.

Polietilenoa

Estalduan erabiliko den polietilenoa dentsitate baxuko motakoa izango da, eta hau 0,920 eta 0,924 gr/cm³

bitartekoa izango da, eta oinarri polimeroaren gainean neurtua, pigmenturik gabe, ASTM-D-1505 arauaren azken edizioaren arabera, eta bero tratamendua ASTM-D-1 928 B prozeduraren bitartez egindakoa.

Polietilenoak espezifikazio honetan xedatzen diren estalkiaren fabrikatzeko eta azken erabilerarako beharrezkoak diren antioxidatzaile, egonkortzaile eta pigmentuak besterik ez du edukiko.

Bukaerako konposatu beltzaren dentsitatea gehiturik egongo da kearen beltz edukiaz, eta gehikuntza hori batez beste kearen beltzaren %1 bakoitzeko 0,0044 gr/cm³ izango da gutxi gorabehera. Kearen beltz kopurua gutxienez %2 izango da, eta gehienez %3; ondorioz, konposatu honen dentsitatea 0,929 eta 0,937 gr/cm³ bitartekoa izango da.

Dentsitate hori dagokion espezifikazioak ezarritakoaz erabakiko da, kontrol metodoaren bitartez. Jariakortasun indizea (Melt flow index) 0,2/0,3 GR/10 min izango da (1900 C-2, 16 kg/cm², ASTM-D-1238 edo 73 ISO R/292 espezifikazioen arabera).

Altzairu azalarekiko itsaspena: PE estalkia tutuaren altzairuzko azalari itsatsirik egongo da, eta horrekin batean seinalatzen diren saialdiak egitean askatzeko beharrezkoa den esfortzua beti 175N baino handiagoa izango da.

Azal erresistentzia: PEzko estaldurak honekin batean zehazten diren probak gainditu behar ditu, hau da, kanpo inpaktuarekiko erresistentzia eta bola sarpenarekikoa.

Luzapena hausturarekiko: Estalduraren materialak honekin batean zehazten den eran neurtutako luzapena jasan beharko du, eta, gutxienez, %200 izango da.

Erresistentzia elektrikoa: Estalduraren erresistentzia elektrikoa, honekin batean zehazten den eran neurtuta, gutxienez, 108 = m² izango da.

Argi-bero zaharkitzearekiko egonkortasuna: Dagozkion saioak egingo dira, honekin batera doan espezifikazioaren arabera, estalduraren zaharkitzean giroak duen eragina zehazteko helburuarekin.

Itsasgarria

Estrusio bidezko estaldura azal itsaskorrek (Primer) ez du ura xurga dezaketen substantziarik izango. Kopolimero gogor bat erabiliko da.

i) Sistemaren kable elektrikoak eta aire konprimitua

- **Kable elektrikoak**

Kableak garraiatzeko tutu sarean barrena hedatuko dira. Kableak multipolarrak izango dira, eta eroale kopurua 10 eta 30 artean egongo da. Eroale bakoitzaren sekzioa 0,75 mm² izango da. Kableak multipare izango dira, 1,5 mm²-ko 8 pare unipolarrak.

- **Aire konprimiturako tutuak**

Garraiatzeko tutu sarean barrena hedatuko dira. Tutuak polietilenoazkoak eta 10 kg/cm²-ko lan presioan egoteko diseinatutakoak izango dira. Kanpo diametroa 16/11 mm-koa da, Ø 50 mm.

- **Babes hodiak**

Bai kable elektrikoa bai aire konprimiturako tutuak babes hodietan sartuta egongo dira. Hodi horiek PVC korrugatuzkoak izango dira, Ø 63 mm-koak.

j) Erregistroak eta obra fabrikak "in situ"

Tutuak eta fabrika obrak elkartzen direneko junturak, beren ezaugarriengatik juntura elastikoak ezin badira jarri, "in situ" gauzatuko dira, tutuaren eta fabrika obraren arteko hutsunea mortero hedakorrez beteko dira, kalitate handikoa eta kreditaturiko marka bateko morteroaz hain zuzen. Mortero horretaz bete beharreko hutsunea hiru zentimetrokoa izango da (3 cm), junturaren perimetroaren luze-zabal guztian. Kanpo eta barne zigilatzea egingo da, junturaren perimetro guztian mastika bituminosoa emanaz.

- **Ikuskatze erregistroetako markoak eta estalkiak**

EN-124: 1995 arauak itxitura eraikinei buruz ezartzen duena hartuko da aintzat, ezaugarri hauekin:

- Pasaera neurria: Ø 600 mm
- Materiala: burdinurtu nodularra
- Zama: 40 Tn
- Estalkia: gontzaz artikulatua, kokapen topeduna
- Itxigailua: burdinurtu harikorrezko apendize elastiko bidezkoa, estalkiarekin bat egindakoa
- Intsonorizazioa: juntura elastiko bidezkoa, markoan ezarria
- Kutxatilara finkatzea: 4 Spit bidez edo burdineria bidez (Ø 12)
- Inskripzioa: Iruñerriko Mankomunitatearen Zerbitzua eta anagrama. Hondakinak
- Mota: 4. multzoa. Saila D400 gutxienez.
- Markatzea: S/EN-124, zertifikatze erakunde kreditatuaren markaduna.

- **Pate igokariak**

UNE-EN 13101 arauak ezarritakoa hartuko da aintzat, lurperatutako erregistro zuloetarako pateei buruzkoan.

Pate horiek 2 motatakoak izan litezke:

1. Ø 12ko altzairuzko hagaz indartutako polipropilenoa.
2. Polipropileno takoaz anodizatutako aluminioa.

k) Katodo babeserako baldintzak

Tutuak estaltzen dituen hiru geruzadun PEzko estalduran ager daitezkeen etenak edo desberdintasunak direla-eta, katodo babesa erabiliko da horiek babesteko (anodo galbanikoak edo korronte inprimatua). Babes horien ezaugarriak hauek dira:

- Tutua korronte inprimatzeko katodo babes batek babesturik egongo da, bilketa-gune nagusitik bidaliko edo milikorronte hori gune metalikoetan kokatuko da eta oki zehatzetako korrosioa eragotziko du.
- Tutua lurpean ezarrita dagoen lotura guztietan, eta juntura dielektrikoaz gain, katodo babesa mantendu behar da, anodo galbaniko bitartez. Loturaren babes instalazio horren kopurua eta ezaugarriak hartara espezializatutako enpresa batek egingo ditu.
- Eraikinen sarbideetan juntura dielektrikoa ezarriko da, sare nagusiaren eta barnekoaren babes korrontea egoki ez den beste ezein helburutara iristea eragozteko.
- Horma bat zeharkatzen den bakoitzean horma-zeharkatzaile bat ezarriko da, tutuarekiko ezein deribazio (egiturarena, lur-lotunea eta abar) galeraz dezan, katodo babesak etenik gabe iraun dezan.

l) Estalduraren ezaugarriak

Altzairuaren azaleko edozein punturen gainean estaldurak izango duen lodiera osoa taula honen araberakoa izango da: Tutuaren DN hazbetetan	Lodiera mm-tan		
	Arrunta	Indartua	Bikoitza
< 4''	1,8	2,5	3,6
4'' eta 8'' bitartean	2	3	4
10'' eta 30'' bitartean	2,5	3,5	5

8.- EKIPO ETA INSTALAZIO MEKANIKOAK

8.1.- Bilketa-gune nagusiko ekipiak

Proiektuko bilketa-gune nagusiko oinarritzko ekipoen ezaugarriak hauek dira:

a) Turboerauzgailuak

Turboerauzgailuak, altzairuzko bastidoredunak.

Turboerauzgailuak motor elektriko horituta egongo dira, akoplamendu malguen bidez.

Multzoaren ezaugarriak (xurgatzeko ahalmen osoa, depresioa, xurgatutako potentzia eta motorrak) kualitatiboak izango dira instalazio bakoitzaren dimentsioen arabera.

Bibrazio aurkako altzairuzko karkasa gainean horizontalki muntatutako motorrak, turboerauzgailuekin batera.

Ezaugarri nagusiak:

Motorraren potentzia: 55, 75, 90 eta 110 Kw, instalazioaren arabera.

Babespena: IP-54

Birak (Asinkronoa – 50 Hz): 2.950 b/min

Tentsioa: 380 V trifasikoa

Abiaraztea: maiztasun erregulagailu bidez, Profibus-DP bitartez PLC orokorrarekin komunikatua

b) Hondakinak bereizteko zikloia

Zikloiak eraikin estatikoa izango dira. Dimentsio nagusiak hauek izango dira:

- Altuera: 4,5 m
- Diametroa: 2,5 m
- Lodiera: 10 mm

St. 52.3 altzairuz eginda egongo dira eta hondakin-maila adierazgailuak izango dituzte.

Elikatze tobera baten bitartez, haren barnealdea hondakin trinkogailuarekin konektatuta egongo da, depresioa jasaten duen akoplamendu batez.

Haren lau bermapuntuak bibrazio aurkako elementuz finkatuta egongo dira.

c) Hondakin bereizgailu birakaria

Bereizgailu birakaria bereizte zikloiaren goiko aldean egongo da.

Motor elektriko batek eragingo du eta uhal-murriztailua izango du, trapezio formakoa.

Ezaugarri nagusiak:

Biratez abiadura: 600 b/min gutxi gorabehera

Motor elektriko: 7,5 kW

Diametroa: 1 m gutxi gorabehera

Abiarazte mota: izar/triangelu motakoa

d) Hondakin trinkogailua

Trinkogailuak trinkotze horizontaleko plaka motakoak izango dira, eta funtzionamendu hidraulikoa izango dute. Hermetikoki itxita egongo dira, presio pean lan egiteko. Haien goialdea bereizte zikloiko elikatze toberarekin konektaturik egongo da, eta beren alboetako bat hondakin edukiontziarekin. Konexio guztiak hermetikoki itxita egongo dira, eta depresioa jasateko modukoak izango dira. Trinkogailuaren eta edukiontziaeren arteko itxidura mekanismoa akzionatze automatikokoa izango da.

Ezaugarri nagusiak:

Trinkotzeko plakaren dimentsioak: 0,9 m u 1,3 m

Zama-ganberaren dimentsioak: 1,1 m u 1,3 m u 1,1 m

Trinkogailuaren dimentsioak: 3,3 m u 2,5 m u 1,7 m

Trinkotze presioa: 20 – 30 T

Ekipo elektriko: 7,5 kW-eko motorra

Abiarazte mota: izar/triangelu motakoa

e) Hondakin edukiontziak

Edukiontziak St 37.2 altzairuzkoak izango dira. Hermetikoki itxita egongo dira eta depresioa jasateko modukoak izango dira. Haien beheko aldean profil sorta batez hornituta egongo dira, kamioietatik zama eta hustuketa lanak errazteko.

Ezaugarri nagusiak:

Edukiontzi bakoitzaren bolumena: 25 - 30 m² proiektuaren arabera
Dimentsioak: luzera, 7.000 mm; altuera, 2.560 mm; zabalera, 2.460 mm
Zama-hustea: roll-on/roll-off sistema
Edukiontziaren bareneko gehieneko depresioa: 40 kPa

f) Edukiontzien barneko garraiatzea

Zubi-garabi bitartez edo gurdi bitartez egin ahal izango da. Zubi-garabiaren kasuan, gutxienez 25 tona jasotzeko eta garraiatzeko ahalmena izango dute, bai eta edukiontzia eusteko lau ainguratze puntu. Gurdiari motor elektriko batek eragingo dio. Gutxienez 25 tona zama jasotzeko eta garraiatzeko ahalmena duen aparatua izango du, bertikalki eta zeharka lan egingo duena.

g) Garraiatzeko airea araztea. Lehen iragazketa

Ezaugarri nagusiak:

Garraiatzeko airearen emaria: 7 m³/s
Arazketaren eraginkortasuna: gutxienez %80
Ateratako aireak metro kubo arunt bakoitzeko gehienez 10 mg hauts eduki ahal izango du

h) Garraiatzeko airea araztea. Bigarren iragazketa. Usainak kentzea

Ezaugarri nagusiak:

Aurrearazketaren eraginkortasuna: gutxienez %90
Atmosferara kanporatzen den airean eragin behar den arazketak gutxienez %99,9 izan behar du

i) Airearen lastertasun kontrola

Tresneria erregulazio-balbula, Venturi hodia hornitua, depresioa neurtzeko elementuak, manobakumetroak eta abar izango dira. Turboerazgailuen abiaraztea edo geldiaraztea gobernatu beharko dute, eta bai balbulen irekierak eta itxierak ere.

j) Aire konprimituaren instalazioa

Aire konprimitua bi pausoko konpresore batez sorraraziko da, bolantea eta abiarazte/gelditze-gailu automatikoa izango dituena. Lan-presio arrunta 8 kg/cm² -koa izango da. Aire konprimitua biltegitratzeko bolumena 500 litrokoa izango da.

Aire konprimitua, sareratu izan aurretik, lehorte eta aire araztua sortzeko bi dorrez garbitua izango da. Aire konprimagailuari 7,5 kW-eko motor batek eragingo dio.

k) Bilketa-gune nagusiaren barneko tutuak eta balbulak

Bilketa-gune nagusian hainbat hoditeria eta balbula egongo da.

Itxitura-balbulak, turboerazgailuen mailaren gainetik kokaturik egongo direnak. Atzeraezeko balbulak izango dira, airea beste zuzenbidean ibil ez dadin. Kolore urdina RAL 5051.

Aire-tutua. Aire gune nagusitik eramaten duena izango da. Turboerazgailuak eta hondakinen zikloia birplanteatu eta gero diseinatuko da. Kolore horia RAL 1021 mm lodiera izango du, karbono-altzairuzkoa, St 37.2.

8.2.- Garraiatzeko sareko ekipoa

a) Hondakin balbulak

Balbulak bilketa-gune nagusiko aire konprimagailuari konektaturik daude, eta itxitura elementuak aire konprimituzko zilindro batzuek eragiten dituzte.

Balbulen funtzionamendua bilketa-gune nagusiko PLC-k kontrolatzen du. Terminal elektroniko zenbaitek, hondakin-balbulak kokatzen diren aretoetan jarrita egongo direnak, ordenagailuak igorritako aginduak gauzatzeko eta egiaztatzen dituzte.

Itxitura elementua plaka indartua da, balbularen barnean dagoena, bertikalki ireki eta itxi daitekeena.

Ezaugarri nagusiak ondorengo hauek dira:

- Dimentsioa: irekiera diametroa 500 mm-koa (500 mm-ko diametroko garraiatzeko tuturako)
- Balbula-gorputza. Materiala: altzairua DIN St 34-2
- Hormaren lodiera: 5 mm
- Aire konprimituzko zilindroa. Diametroa: 100 mm
- Ibiltartea: 200 mm
- Presioa: 10 atm

Aire konprimituzko ekipoak hauek ditu: balbula magnetikoak, arazketa iragazkia, itxitura balbulak eta abar. Kontrolerako terminal elektronikoa.

Luzapen-tutua, zorrotan bertikalaren eta balbularen artean, ikuskatzeko atearekin.

Hondakinen maila kontrolatzeko ekipoa, haren osagaiak zelula fotoelektrikoak baitira, luzapen tutuaren goiko aldean kokaturik dagoena.

b) Aire sartzeko balbulak

Balbulak bilketa-gune nagusiko aire konprimagailuari konektaturik daude, eta itxitura elementuak aire konprimituzko zilindro batzuek eragiten dituzte.

Balbulen funtzionamendua bilketa-gune nagusiko PLC-k kontrolatzen du. Terminal elektroniko zenbaitek, hondakin balbulak kokatzen diren aretoetan jarrita egongo direnak, ordenagailuak igorritako aginduak gauzatzeko eta egiaztatzen dituzte.

Airea lastertasun handiz sartzen denez balbulara, zarata maila handi samarra da eta horregatik balbulak isilgailuz hornituta daude.

Ezaugarri nagusiak ondorengo hauek dira:

- Dimentsioa: irekiera diametroa 400 mm-koa (500 mm-koa garraiatzeko tutuetarako)
- Itxitura elementua: altzairuzko diskoa, gomazko juntura duena
- Aire konprimituzko zilindroa. Diametroa: 100 mm
- Presioa: 10 atm
- Aire konprimituzko ekipoaren osagaiak: itxitura balbulak eta abar
- Kontrolerako terminal elektrikoa
- Isilgailua, zarata maila 55 dB baino beherago jaitsarazten baitu, altzairu galbanizatu eta altzairu ilez eraikitakoa da

Dimentsioak hauek dira:

- Kanpoko neurriak: 1200 mm × 1200 mm × 1000 mm
- Altzairu ilearen lodiera: 50 mm

c) Sekzionamendu-balbulak

Sekzionamendu-balbula bakoitza bere kutxan instalatuta egongo da.

Balbula hauen irekidurak 500 mm-ko diametroa du, eta era pneumatikoan zilindro batek eragiten die, itxitura ate labainkorrezkoa du.

Ireki eta ixteko kontrol-ekipoa kontrol panelarekiko egokia izango da.

d) Ikuskatze erregistroak

Zerbitzu galerian, erregistro putzuetan eta sekzionamendu-kutxetan kokatuak.

St 37.2 altzairuz eginda egongo dira. Dimentsioak hauek izango dira: 800 × 600 mm.

e) Aire konprimituaren hodia eta seinalea

Plastikozko tutuak izango dira (polietileno), PE 63-4 atm, kable elektrikoetarako babes alanbrea izango dute, bai eta aire konprimiturako, diametroa 44 eta 3 mm azalera laua. Hodien eraikitze planoetan ageri bezala instalatuko dira.

8.3.- Isurtze instalazioak

a) Hondakinen balbulen eta aire balbularen aretoaren ezaugarri teknikoak

- Hormak eta sabaiak, gutxienez, 200 mm c.a. azpipresio baterako dimentsionatu behar dira
- Zoruak leunduta eta pintatuta egongo dira, eta horma eta zoruaren arteko elkargunea kurba erakoa izango da
- Hormak garbigarriak izango dira
- Ateak kanpoalderantz ireki ahal izatekoak izango dira
- Zarata mailak gutxi gorabehera:
 - Hondakin-balbularen ganbera: 80-90 dB (A)
 - Aire-balbularen ganbera: 60-80 dB (A)

b) Isur-guneak. Konportak eta/edo ontziak

Erabiliko den konporta altzairu herdoilgaitzezkoa da, eta irekidura 400 x 400 mm. Itxiturak, segurtasun bloke elektronikoak eta maila sentsoreak eduki beharko dituzte. Konporta hauek bete behar dituzten segurtasun funtzioak hauek dira:

- Konporta irekitzea blokeatzea isur-ontzia aktibatuta dagoenean.
- Behin konporta irekita dagoela, isur-ontzi hau aktibatzea ezinezko bihurtzea.
- Konporta irekita dagoelako seinale akustikoa egingo du.

c) Ontzien eta konporten ezaugarri teknikoak

Bai sustatzaileek bai eta urbanizatzaileek ere aukeratu ahal izateko hainbat eredu desberdin aurkeztuko dute, SCPSAren zerbitzu teknikoek egokiena hautatzeko aukera izan dezaten.

8.4.- Automatismoa eta kontrola

a) Automatismoa

Aurreikusitako automatizazio instalazioaren barnean, elementu hauek jartzea hautatu da:

- Kontrolagailu nagusi bat ekipo guztietarako.
- Kontrolagailuaren eta ekipo morroien arteko komunikazio sarea.
- Kontrolagailuaren eta kontrol sistemaren arteko komunikazio sarea.

Sistemako ekipo guztiak kontrolatuko dituena PLC bat izango da, Siemens S7-400-ekin bateragarria.

Ekipoek beren PLC-a daukaten kasuetan (trinkogailuak kasu), Siemens markarekin bateragarria beharko du izan, eta PLC nagusiarekin Profibus DP sare batez edo Ethernet sareaz komunikatu beharko du.

Ekipoek maiztasun aldagailua daukaten kasuetan, Siemens edo Danfoss markekin bateragarria izan

beharko du, eta PLC nagusiarekin Profibus DP txartel baten bidez komunikatu beharko du.

Bilketa sareko balbula pneumatiko guztien kontrola periferia dezentralizatu bitartez egingo da. Kanpo busa esistituko da, eta horrek PLC nagusia eta sare-seinale kontzentragailuekin konektatuko baititu.

b) Kontrolagailu logikoak eta programagarriak

PLC-ak izango ditu bere baitan beharrezko sarrera eta irteera txartelak, analogikoak eta digitalak, eta beste sarrera eta irteera %20 gehiago, erreserba moduan. Prozesuko PLC-ak lan hauek egingo ditu:

- Makina bakoitzaren egoeraren (funtzionamenduan, gelditua besterik gabe, gelditua babesak aktibatu direlako) eta funtzionamendu eraren (eskuzkoa edo automatikoa) informazioa biltzea.
- Makinen abiarazte eta geldiarazte automatikoa programatutako logiken arabera.
- Teleaginte sistemarekin informazioa eta aginduak helaraztea eta partekatzea.

PLC-a koadro independente batean kokatuta egongo da, CCMen ondoan, altzairuz egina, babes maila IP54 izango du eta ikuskatzeko modukoa, sarrailadun atez. Ateak polikarboato gardenezkoak izango dira, PLC-aren led-ak ikusi ahal izateko.

Koadro hauek elementu hauek izango dituzte:

- Etengailu automatiko magnetotermikoa IV, diferentzial babeseko gailua izango duena.
- Etengailu automatiko magnetotermikoa I+N aurrekoaren irteeran, transformadorearen zirkuituak babesteko, isolamenduaz, erresistentzia berotzeaz, koadroaren barneko argiztapena, korronte lotunea, eta abar.
- Isolamendu-transformadore monofasikoa, 380/220 V erlazioa duena.
- Etengailu automatiko magnetotermikoak II aurrekoaren irteeran, elikatze-iturriaren zirkuituak babesteko.
- Elikatze-iturri egonkortua, 220 Vca/24 Vcc.
- Etengailu automatiko magnetotermikoak unipolarak aurrekoaren irteeran, PLC-aren sarrera eta irteera txartelak elikatze.
- Prozesuko PLC-aren kasuan, hainbat errele lagungarri, 24 Vcc bobinadunak, kontaktoreen, etengailu motorizatu eta abarren maniobrarako diren irteera digitalak bezainbeste.

III.- ERANSKINA – GARBIGUNEETARA ERAMAN DAITEZKEEN HONDAKINAK

HONDAKINA	LER KODEA	KANTITATEA
Tonerra, tinta, inprimatzeko zintak	080317*	2 unitate
Aerosolak	150110*	3 unitate
Metalezko ontzi kutsatuak	150110*	5 unitate
Plastikozko ontzi kutsatuak	150110*	5 unitate
Su-itxalgailuak	150110*	1 unitate
Hidrokarburoak dituen ura	160708*	5 litro
Fibrozementua	170605*	1 M ² (1)
Disolbatzaileak	200113*	3 litro
Azidoak	200114*	1 litro
Oinarriak (soluzio alkalinoak)	200115*	1 litro
Argazkilaritzako likidoak	200117*	1 litro
Fitosanitarioak	200119*	3 unitate
Merkurioa	200121*	2 Termometro, anpulu bat
Beribiletako olioak	200126*	5 litro
Landare olioak	200125	5 litro
Argizari eta koipe erabiliak	200126*	1 kilogramo
Erregaiak, gasolioa	130701	5 litro
Erregaiak, gasolina	130702	5 litro
Beribiletako iragazkiak	160107	1 unitate
Pintura	200127*	5 litro
Pintura, disolbatzailea duena	200113	5 litro
Garbigarriak	200129*	3 litro
Bateriak, Pb-azidoa	200133*	2 unitate

Erradiografiak	200199	Mugarik gabe
Material kutsatua, xurgatzaileak	150202	5 kilogramo
Izotz-aurkakoa	160114*	5 litro
Sendagaiak	200132	1 kilogramo
Botoi erako pilak, litioa, kadmioa	200133*	0,5 kilogramo
Pilak	200134	2,5 kilogramo

TEEH

Fluoreszenteak	200121*	3 unitate
Telebisten pantailak, ordenagailuak	200135*	2 unitate
Etxetresna elektriko txikiak	200135*	2 unitate

(1) Soil-soilik garbigune finkoetara. Erabiltzaileak sartu beharko du hondakina poltsan (poltsa garbigunean bertan emango diote).

Garbigunera ezin dira eraman hondakin hauek:

- Saillatu gabeko materialak
- Industria hondakinak kantitate handitan
- Gorpu hondakinak edo kutsakorrak
- Janari hondarrak
- Konfiskatu diren gaiak
- Hondakin erradioaktiboak
- Meagintzan edo ateratze langintzan sortutako hondakinak
- Nekazaritzako edo abeltzaintzako hondakinak

IV.- ERANSKINA. EDUKIONTZIAK ETA BUZOIAK IREKITZEKO GAILUAK ERABILTZEKO ETA ESKURATZEKO ARAUAK

Behin kokatu denean irekitze-sistema dagokion tokian, ordenantza honetako 16. artikuluan jasota dagoenaren arabera, erabiltzaileei gutxienez bi txartel edo gailu baliokide emango zaizkie posta-helbide bakoitzeko, eta, hartara, gailuaren erabilera eman zeneko posta-helbideari lotuta egongo da.

Galtzearen, lapurtzearen, hondatzearen, berritzearen eta/edo helbidea aldatzearen ondorioz irekitzeko gailu gehiago emateko, aurretik eskaera egin beharko da.

Ezaugarri hauetako irekitze-sistema duen zeinahi edukiontzi eta/edo buzoi irekitzeko balioko dute gailuek. Mankomunitateko lehendakariak onartutako edozein aldaketa edo murrizketa abian jarri baino lehen jakinarazi beharko da, behar den denborarekin.

Sistema ezarrita duen frakzioetako bakoitza asteko zein egunetan ireki daitekeen ezarriko du Mankomunitateak. Asteko irekitze-egunen zerrenda hori ezarri eta aldatzea, Mankomunitateko lehendakariak onartua, abian jarri baino lehen jakinarazi beharko da, behar den denborarekin.

Aginduta dituen zerbitzuek behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren aldaketak egiteko ahalmena du Mankomunitateak.

Garinerako frakzioaren edukiontzian eta/edo buzoiaren bota beharreko hondakin gehiago sortzea, hala nola pixoihalak eta antzekoak, justifikatzen duten berriazko inguruabarrak daudenean, egunero zabaltzeko aukera emango duten gailuak emango dira. Hala emandako gailuak jaulki eta handik bost urtera irauginko dira.

Eraikin batean atezaintza-zerbitzua, garbiketako edo baliokidea badago, eraikineko hondakinak botatzeaz arduratzen dena, Mankomunitateak zerbitzu horien arduradunari gailu bat emango dio, eraikinean sortzen diren hondakinak botatzeko edukiontzia eta/edo buzoi ireki ahal izateko.

Irekitzeko gailuen funtzionaltasunak beste batzuekin integratu ahal izango dira, barne hartuta Iruñerriko Mankomunitateak ematen dituen zerbitzu publikoetan erabiltzen direnak, besteak beste, Eskualdeko Hiri Garraioan erabiltzen direnekin, aurretik eskaera eginda.